



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1999ko otsailaren 8an

7 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko Ureztaketa Planean sartutako ureztaketetako jarduketa eta obrei buruzkoa (4. or.).
- Foru Lege proiektua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren fakultatiboentzako lanbide karrerako sistema arautzen duena (7. or.).
- Foru Legea, tributu arloko aldaketei buruzkoa. Akats zuzenketa (13. or.).
- Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuari buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, administrazioarekin kontratatu ahal izateko betekizunen arloko hainbat kontzepturi dagokiona. Emendakinak aurkezteko epearen luzapena (14. or.).
- Foru Lege proposamena, lanaldia 35 ordukoa izan dadin laguntzeko eta lan denbora banatzeko neurri publikoak ezartzeari buruzkoa. Emendakinak aurkezteko epearen luzapena (14. or.).
- Foru Lege proposamena, eskubide sozialen gutun baterako. Emendakinak aurkezteko epearen luzapena (14. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere borondate politikoa adierazten du elkartzeko, eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko organo bat sortzearen alde. “Mesa por la Paz de Navarra-Nafarroako Bakearen aldeko Mahaia” izanen du izena, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da haur-hezkuntzako lehen zikloa arautu dezan, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (16. or.).

F SAILA:

Galderak:

- N-240 A errepidearen Berriozar-Aitzoain-Berriobeiti zatiari buruzko galdera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentario jaunak egina (18. or.).
- Nafarroako errepideetan istripu gehiago izateari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak egina (19. or.).

- Baztanen eta Malerrekan galondoak erre eta oihan-lanak egitearen ondorioz sortu diren suteei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak egina (20. or.).
- Etxebizitzak saldu edo alokatzeko ekintza publizitarioen araugabekeria eta akatsei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak egina (21. or.).
- Etxabakoitz auzoa bi osasun eskualde oinarritzotan banatzeko aukerari buruzko galdera, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andrea egina 922. or.).
- Gazteen artean GIBi aurea hartzeko jardueretan jarraitzeari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak egina (23. or.).
- Osasun Departamentuaren 17050-3 lerroaren helburuei buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak egina (23. or.).
- Laneko segurtasun eta osasunaren gaineko gutxieneko xedapenak ezarri zituen 1215/97 Errege Dekretuaren garapenari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak egina (24. or.).
- Nekazaritza eta elikadura sektorearen egoerari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak egina (24. or.).
- Saiek azindari oldartu omen zaizkiola-eta, hainbat gairi buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak egina (25. or.).
- Nafarroako Gobernuak RTVE ente publikoarekin izenpetu duen hitzarmenari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak egina (25. or.).
- Arto transgenikoaren laborantzaren egoerari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak egina (26. or.).
- Escudera putzuan bildutako ura ponpatzeari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak egina (27. or.).
- Aldrin pestizida erabiltzeari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak egina (27. or.).
- DDT pestizida erabiltzeari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak egina (28. or.).
- Dioldrin pestizida erabiltzeari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak egina (28. or.).
- Lindano pestizida erabiltzeari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak egina (29. or.).
- HCH pestizida erabiltzeari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak egina (29. or.).
- Captafol pestizida erabiltzeari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak egina (30. or.).
- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 50. urteurrena dela-eta argitaratu diren testuei buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak egina (30. or.).
- Harrobien ingurugiro-eraginak zuzentzeari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak egina (31. or.).
- Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ingurugiro-interesa duten aldeei buruz toki entitateekin izenpetu duen hitzarmenaren gaineko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak egina (32. or.).
- Ibai arroetako natur arriskua neurtzeari eta ingurugiro-baliabideen kudeaketari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak egina (33. or.).
- Ega eta Urederrako ibaiertzak ingurugiroaren aldetik bereoneratzeko azterlanari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak egina (34. or.).
- “Lurzorua eta etxebizitzak eskuratu eta sustatzea” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak egina (34. or.).
- Alokairuko etxebizitzekin zerikusia duten kontusailen aurrekontu-betetzeari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak egina (35. or.).
- Etxebizitzak zaharbertzearekin zerikusia duten kontusailen aurrekontu-betetzeari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak egina (36. or.).
- “Etxebizitza-jarduketetarako dirulaguntzak eta sorospenak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak egina (36. or.).

- Tuterako Atalaya zentroko egoiliar bati gertaturikoei buruzko galdera, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak egina (37. or.).
- Urritasun psikikoak eta trastorno mentalak dituztenei arreta egiteari buruzko galdera, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak egina (38. or.).
- Ondasunak zaharberritzeko prozeduraren Kontratazio Mahaiari buruzko galdera, José Miguel Nuin Moreno Foru Parlamentario jaunak egina (39. or.).
- Legez kanpoko etorkinen seme-alabei osasun-laguntzari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak egina (39. or.).
- Kutsadura sor dezaketen enpresei eta hartutako neurriei buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak egina (40. or.).
- Ibaien kutsaduraren aurrean Ebroko Ur Konfederazioaren jarduketei buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak egina (41. or.).
- Ega ibaiko bizidunek jasoko duten azkenengo isurketaren ondorioei buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak egina (41. or.).
- Ingurugiro Departamentuak noiz izan zuen Ega ibaian gertaturiko azkenengo isurketa kutsatsailearen berri itauntzen duen galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak egina (42. or.).
- Altsatsuko Ulaiar errekaen kutsadurari buruzko galdera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentario jaunak egina (43. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko Ureztaketa Planean sartutako ureztaketetako jarduketa eta obrei buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 1998ko abenduaren 28an hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Ureztaketa Planean sartutako ureztaketetako jarduketa eta obrei buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125 artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaileen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Ureztaketa Planean sartutako ureztaketetako jarduketa eta obrei buruzko Foru Lege proiektua ohiko jardunbidez bideratzea.

Bigarrena.- Proiektu hartaz Irizpena emateko ahalmena Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost laneguneko epea irekiko da, 1999ko otsailaren 26ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko Taldeek eta Foru Parlamentarioek emendakinak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko Ureztaketa Planean sartutako ureztaketetako jarduketa eta obrei buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak, 1998ko abenduaren 2an egindako bilkuran, Nafarroako Foru Komunitateko Ureztaketa Plana onetsi zuen, horren inguruko ebazpen proposamenarekin batera.

Ebazpen proposamen horren barruan, Garatu beharreko Jarduketa Programen artean, “Lege mailako Garapena” izeneko Programa sartu da. Bertan, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio hiru hilabeteko epearen barruan, Foru Lege Proiektu bat bidal diezaion Nafarroako Parlamentuari, hain zuzen Nafarroako Foru Komunitateko Ureztaketa Planean sartutako ureztaketetako jarduketa eta obrak zerrendatzeko eta, orobat, lur horien onura publikoa edo interes soziala deklaratu eta ureztaketako lurak lurzoru urbanizaezin gisa babesteko behar diren zehaztapenak biltzeko, interes publikoa dela kausa litezkeen salbuespenak onartzeko aukera galarazi gabe.

Foru Lege Proiektu horren bidez, ahalmena emanen zaio Nafarroako Gobernuari aipatu jarduketa eta obren zerrendan aldaketa puntualak egiteko, foru dekretu bidez, arrazoituak beti ere, inguruabar bereziak direla-eta, lur gehiago sartzeari edo daudenak oso-osorik edo neurri batean aldatzea beharrezkoa edo komenigarria dela ikusten bada. Foru Lege Proiektu horrek, bestalde, bidea eman beharko luke Nafarroako Foru Komunitateko Ureztaketa Planean sartutako jarduketa eta obrak finantzatzeko aurreikuspenak Nekazaritzako Azpiegituren Erreformari buruzko abenduaren 9ko 18/1994 Foru Legean eta Nekazaritzaren Finantzazioari buruzko lege mailako xedapen guztien Testu Bategina onetsi zuen otsailaren 16ko Legegintzako 54/1998 Foru Dekretuan adierazitakoari moldatzeko.

Nafarroako Foru Komunitateko Ureztaketa Planari atxikitako ebazpen proposamen horretan adierazitakoa betearazteko, bidezko da dagokion Foru Legea artikulatzea, batetik, Planean aurreikusitako ureztaketetako jarduketa eta obrak zerrendatzeko, eta bestetik, ebazpenean bildutako zehaztapenak emateko, hori guztia Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren indarrez, Nafarroako Foru Komunitateak ureztaketan, nekazaritzaren, herrilanen, ingurugiroaren eta lurraldearen antolamenduaren arloetan dituen eskumenak baliatuz.

1. artikulua.

Foru Lege honen Eranskinean azaltzen diren ureztaketetako obra eta jarduketak Nafarroako Parlamentuko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak 1998ko abenduaren 2an egindako bilkuran onetsitako Nafarroako Foru Komunitateko Ureztaketa Planean sartuko dira.

2. artikulua.

Nafarroako Gobernuak ahalmena du Foru Lege honen Eranskinean eta Ureztaketa Planean agertzen diren jarduketa, obra, esparru eta diruzenbatekoetan aldaketa justifikatuak egiteko, Nekazaritzako Azpiegituren Erreformari buruzko abenduaren 9ko 18/1994 Foru Legeari jarraikiz, kasuan-kasuan gertatzen diren inguruabarren arabera.

3. artikulua.

1. Foru Lege honen Eranskinean zerrendatzen diren jarduketa eta obren onura publikoa eta interes orokorra deklaratzeko da, bai halaber, 2. artikuluan adierazitakoari jarraikiz, indarra duen legerian ezarritako bidezko helburu eta ondorioetarako, Nafarroako Gobernuak zerrenda horretan gero sartzen dituen guztiena.

2. Zehazki, Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenez den bezainbatean, ondorengo lan hauen onura publikoa eta interes orokorra deklaratzeko da, ondorio guztietarako: Nafarroako Ubi-dearen obra eta jarduketak, eta haren eraginpeko eskualde ureztagarrien ureztaketak ezarri eta hobetzekoak.

4. artikulua.

Foru Lege honen babesean sustatzen diren ureztaketetako obra eta jarduketak Nekazaritzako Azpiegituren Erreformari buruzko abenduaren 9ko 18/1994 Foru Legean eta aplikatu beharreko gainerako xedapenetan aurreikusitakoari jarraikiz burutuko dira.

5. artikulua.

Foru Lege hau eta Nafarroako Foru Komunitateko Ureztaketa Plana garatu eta aplikatzeko behar diren obra eta jarduketan finantzazioari dagokionez, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitatean dauden finantzabideak hobetzeko litezkeen Estatuko edo Europako Batasuneko xedapen, programa eta planetan ezarritakoaren mende egonen da, eta, zehazki, honakoetan adierazitako-arenera: Nekazaritzako Azpiegituren Erreformari buruzko abenduaren 9ko 18/1994 Foru Legea eta Nekazaritzaren Finantzazioari buruzko lege mailako xedapen guztien Testu Bategina onetsi zuen otsailaren 16ko Legegintzako 54/1998 Foru Dekretuaren III. Titulua. Hori horrela, jarduketa eta obra horiek finantzatzeko egokien juzkatzen dituen baliabide ekonomiko eta administratiboak lortzeko behar diren Hitzarmenak sinatu ahalko ditu.

6. artikulua.

Lurraldearen eta hirigintzaren antolamendura-ko baliabideetan, orohar, behar diren zehaztapen eta aurreikuspenak sartu beharko dira Ureztaketa Planean eta Foru Lege honen Eranskinean ureztagarri gisa deklaraturiko eskualdeak hiri-garapeneraren prozesuaz babesteko. Hori helburu, lur horiek lurzoru urbanizaezinen sailean segituko dute eta babesteko behar duten kasuan kasuko hirigintza kategoria emanen zaie, salbu eta interes publiko edo sozialeko arrazoi justifikatuak tarteko, hiri lurzoru edo lurzoru urbanizagarri bihurtzea komenigarria baldin bada.

Xedapen gehigarria

Nafarroako Gobernuari esleitu zaizkion ahalmenak galarazi gabe, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari dagokio, dela zuzenean, dela "Riegos de Navarra, SA" kapital publikoko enpresaren bitartez, Nafarroako Ureztaketa Plana sustatu, garatu eta burutzea, Foru Komunitateko eskumenean esparruan.

Azken xedapenak

Lehena. Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio Foru Lege hau eta Nafarroako Foru Komunitateko Ureztaketa Plana garatu eta aplikatzeko behar diren erregelamenduzko xedapenak eman ditzan.

Bigarrena. Indarrik gabe uzten dira Foru Lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Hirugarrena. Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

ERANSKINA
NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO
UREZTAKETA PLANA OSATZEN DUTEN
JARDUKETA ETA OBRAK

I. EGUN DAUDEN UREZTAKETAK GAURKOTU
ETA HOBETZEA

Aurreikusi den azalera, guztira: 18.908 hektarea

Onuradunak: 6.000.

Inbertsiorako kalkulatu den gehieneko kostua: 18.630 milioi pezeta.

Finantzazioa: Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua.

Burutzeko kalkulatu den epea: 1998-2018.

Jarduketa berariazkoak:

1.1. Viana I, Caparroso (Bayunga) eta Ega Ibarra.

Azalera: 2.104 hektarea.

Burutzeko epea: 1998 eta 1999.

1.2. Santacara, Mélida eta Azkoién-Marcilla.

Azalera: 713 hektarea.

Burutzeko epea: 1998 eta 1999.

1.3. Traibuenas (Bayunga), Zarrakastelu II (La Esperanza), Gares, Arguedas (Tuterako ibaibidea), Murillo el Fruto (Ubide Inperiala), Abartzuza eta Cabanillas (Tausteko Ubidea).

Azalera: 4.639 hektarea.

Burutzeko epea: 1999-2001.

1.4. Beste eskualde batzuk, sinadura bilketa fasean edo sustapen fasean daudenak.

Azalera: 11.452 hektarea.

Burutzeko epea: 2001-2008.

II. BURUTZE FASEAN DAUDEN ESKUALDE
UREZTAGARRIEN FINANTZAZIOA.

Aurreikusi den azalera, guztira: 1.303 hektarea.

Onuradunak: 706.

Inbertsiorako kalkulatu den gehieneko kostua: 1.309 milioi pezeta.

Finantzazioa: Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua.

Burutzeko kalkulatu den epea: 1998-2001.

Berariazko jarduketak:

2.1. Caparroso eta Balsilla Marín.

Azalera: 116 hektarea.

Inbertsiorako kalkulatu den gehieneko kostua: 188 milioi pezeta.

Burutzeko kalkulatu den epea: 1998-2001.

2.2. Mendaviako El Rubio Alto.

Azalera: 835 hektarea.

Inbertsiorako kalkulatu den gehieneko kostua: 848 milioi pezeta.

Burutzeko kalkulatu den epea: 2000-2001.

2.3. Viana II.

Azalera: 352 hektarea.

Inbertsiorako kalkulatu den gehieneko kostua: 273 milioi pezeta.

Burutzeko kalkulatu den epea: 2000-2001.

III. UREZTAKETA BERRIAK JARTZEA.

Aurreikusi den azalera, guztira: 60.433 hektarea.

Onuradunak: 13.717.

Aurreikusitako jarduketak:

3.1. Nafarroako Ubidearen eraginpeko eskualde ureztagarriak.

Azalera: 57.683 hektarea.

Onuradunak: 13.000.

Finantzazioa: Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren kargura izateko aurreikusi den diru kopurua 68.502 milioikoa da, honela xehekatua:

– Lurzatién berrantolamenduari buruzko azterlan teknikoak: 1.705 milioi.

– Lurzati berrantolamenduko bideak eta saneamendu obrak: 6.622 milioi.

– Ura eramateko oinarrizko sarea: 14.312 milioi.

– Ureztatze-ahorainoko banaketa sarea: 33.602 milioi.

– Lurzatiétan instalatzeko obrak: 12.802 milioi.

Burutzeko epea: 2001. urtetik 2018.era arte.

3.2. Ureztaketa sozial berriak.

Azalera osoa: 2.750 hektarea.

Onuradunak: 717.

Inbertsiorako kalkulatu den gehieneko kostua:
2.621 milioi pezeta.

Burutzeko kalkulatu den epea: 2008. urtea baino lehen.

Honako jarduketa berariazko hauek biltzen ditu:

A) Funes

Azalera: 500 hektarea.

Inbertsiorako kalkulatu den gehieneko kostua:
435 milioi pezeta

B) Irunberri

Azalera: 100 hektarea.

Inbertsiorako kalkulatu den gehieneko kostua:
148 milioi pezeta

C) Urraulbeiti-Irunberri

Azalera: 250 hektarea.

Inbertsiorako kalkulatu den gehieneko kostua:
238 milioi pezeta

D) Deierri

Azalera: 200 hektarea.

Inbertsiorako kalkulatu den gehieneko kostua:
200 milioi pezeta

E) Andosilla

Azalera: 800 hektarea.

Inbertsiorako kalkulatu den gehieneko kostua:
700 milioi pezeta

F) Beste eskualde apalago batzuk

Azalera osoa: 900 hektarea.

Inbertsiorako kalkulatu den gehieneko kostua:
900 milioi pezeta.

IV. BESTE JARDUKETA BATZUK.

Atal honetan sartzen dira ureztaketako lur bihurtu eta ureztaketak hobetu aurreko ikerlan eta azterlanak egiteko jarduketak, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak finantzatutak, gai hauen ingurukoak:

a) Lur ureztagarriak hautatzea.

b) Urezta litezkeen eskualdeen gainean egin gabe dauden ikerlanen metodologia eta inbentarioa ezartzea.

c) Ureztalur bihurturiko eskualdeen diagnostikoa eta segimendua, metodologia eta etorkizuneko proiektuen kostuak hobetzeko.

d) Ureztatzaileen prestakuntza, ureztaketa tekniketan eta ingurugiroko gaitetan.

e) Ureztaketak nekazaritzak nekazaritzako elikagaien eta nekazaritzako energiaren industriekin behar lukeen oinarritzko lotura lortzera bideraturiko azterlanak.

Foru Lege proiektua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren fakultatiboentzako lanbide karrerako sistema arautzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 1999ko urtarrilaren 25ean hartutako Erabakiaren bidez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren fakultatiboentzako lanbide karrerako sistema arautzen duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125 artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaileen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren fakultatiboentzako lanbide karrerako sistema arautzen duen Foru Lege proiektua ohiko jardunbidez bideratzea.

Bigarrena.- Proiektu hartaz Irizpena emateko ahalmena Osasun Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost laneguneko epea irekiko da, 1999ko otsailaren 26ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko Taldeek eta

Foru Parlamentarioek emendakinak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Lege proiektua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren fakultatiboentzako lanbide karrerako sistema arautzen duena

ZIOEN AZALPENA

Urriaren 20ko 11/1992 Foru Legeak, bere 34. artikuluan finkatzen du zer formula erabiliko dituen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak bere langileen gorabidea bultzatzeko, eta artikulua horrexen d) idazatian adierazten du "lanbide karreraren oinarritutako soldata-pizgarriak edo beste zenbait elementu ezartzeko, Nafarroako Gobernuak Parlamentura bidaliko du, hala behar denean, Foru Lege proiektu bat."

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren langile fakultatiboentzako lanbide karreraren proiektua 1992-1995 moldatze iragankor-aldiaren ondo-ondotik heldu da.

Aldi hartan, jabetzapeko lanpostuan emandako zerbitzu-urteak irizpide bakartzat hartuta, banaka moldatu da lanbide karreraren subjektu zen fakultatibo bakoitza maila jakin eta aitortu batean, eta ondorioz bai soldata egokitu ere.

Moldatze sistema hori itxuratzekoan finkatu nahi zen fakultatibo bakoitzak zer egoera zeukan lanbide karrera egitez aplikatzen hasi behar zen uanean.

Moldatze aldia 1995eko abenduaren 31n bukatu delarik, eta ondotik ez delarik lanbide karrerako eredu bat etorri, oraingo egoerak kontra egiten die hasieran iritsi nahi ziren helburuak: osasun arloko fakultatiboak motibatu eta bultzatzea, alegia.

Halatan bada, Foru Lege honek aurkezten duen lanbide karrera proiektuak bi zirkunstantziari erantzun nahi die: alde batetik lehenagoko sistema (antzinatasun hutsaren arabera egiten baitziren moldaketak eta soldatak) utzi eta sistema berri batera pasatu beharra, zeina merezimenduen eta emaitzen balorazioan ere oinarrituko baita; eta bestetik, 1996. urtetik Foru Lege hau aldarrikatu arte Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren fakultatiboek lanbide karrera ez aplikatuak sortu duen problema konpondu beharra, horrek kalte egin baitie langile horien asmo-esperantzei. Proiektu honek, halaber, 1992-1995 aldian aintzat

hartu ez ziren Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren fakultatiboek ere erantzuten die, moldatze iragankoragatiko soldata-osagarria aplikatzen baitie.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren arloan fakultatiboentzako lanbide karrera eredu bat sartzea, gainera, osasun laguntzaren hobekuntza kualitatiboa eta kuantitatiboa erdiesteko helburu orokorraren barnean egiten da, honakoak bezalako alderdi oinarritukoak ezarriz eta garatuz: etengabeko prestakuntza hartzea laguntzaren kalitatea hobetzeko ahalegin indibidualaren adierazgarritzat; bideak zabaltzea profesionalak gehiago eta eraginkorrago parte har dezaten osasun zerbitzuen kudeaketan eta zuzendaritzan; eta pizgarri eta motibazio mekanismoak sartzea, ahaleginak egoki bideratu eta lortzen diren emaitzak aitormena izan dezaten.

Alderdiok garatzeko honako ekintza larroak ezarri dira: 1. Kasuko profesionalak berak izatea protagonista Foru Lege hau abiaburu duen lanbide karrera eredu aplikatu eta gero batean garatzerakoan; 2. Ebaluazio sistema araupekoak definitzea, lanbide jarduera ebaluatu, aitormena eman eta saritzeko, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren ingurune guztietan aplikatu ahal izateko adinako malgutasunarekin; 3. Langilearen lan kalitatea, kantitatea eta erantzukizuna aintzat hartzen ez dituen soldata sistema bati akabera ematea; batez ere, kontuan harturik arrisku eta berme orekatuak eta arrazoizkoak badirela, bakoitzarengan eta osasun sistemaren ekonomia orokorrean eragin ekonomiko arrazoizkoa izan dezaketena.

Aipatu printzipioak, hala tokatzen bada, beste lanbide estamentu batzuei ere aplikatuko zaizkie, adibidez gainerako osasun fakultatiboek, erizaintzako osasun langile diplomadunei eta beste estamentuei. Hori gogoan hartuta moldatu da Foru Lege hau. Hala ere, hori egiteko aintzat hartuko da negoziazio kolektiboaren eta lan baldintzen negoziazioaren prozesua, ondoren Lege Proiektu berriazkoetan garatzeko.

1. artikulua. Aplikazio eremua.

1. Foru Lege honek arautzen duen lanbide karrera sistema Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua Erakunde autonomoaren langileei aplikatuko zaie, beti ere lanpostua jabetzan badute, baldin eta lanpostua eskuratzeko eta lanposturako izendatua izateko honako tituluetako bat izatea eskatu bazitzairen: Medikuntza eta Zirujako lizentziaduna edo Farmaziako lizentziaduna.

2. Foru Lege hau ez zaie aplikatuko kupoko eta eskualdeko fakultatiboek, eta ez udalen osa-

sun langileei, non eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioa eskualdurik ez dauden, Toki Osasunean aritzen diren funtzionario gisa.

2. artikulua. Lanbide karreraren definizioa eta mailak

Lanbide karrera aitormen indibiduala eta ekonomiko administratiboa da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren fakultatiboentzat, beren jarduerako jarraitasunagatik eta iraupenagatik, eta, aldi berean, bai lanbide hobekuntzan eta eguneratzean eta lortutako laguntza emaitzetan izandako merezimenduengatik ere.

Lanbide karreraren sistema bost mailatan ezartzen da, zeinetan gora egiteko baldintzak Foru Lege honen 5. eta hurrengo artikuluetan finkatzen diren. Lanbide karreraren maila horiek kontuan hartuko dira Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan lanpostuak betetzeko eta sartzeko prozedura guztietan.

3. artikulua. Lanbide karreraren soldata

1. Lanbide karrera diruz saritzeko lanbide karreragatiko osagarri bat esleituko da, zeina osagarriko soldatatzat hartuko baita urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen 6. artikulua agintzen duenerako, eta zeinak iritsi den lanbide karreraren maila bakoitza saritzen baitu.

2. Lanbide karreragatiko osagarria hamalau hilabetetan pagatuko da, haietako hamabi arruntak eta bi apartekoak.

4. artikulua. Prestakuntza eta ikerketa jarduerarako orduak hartzea.

Profesionalen prestakuntza, ikerketa eta garapen teknikorako jarduerak bultzatzeko, erregelamendu bidez finkatuko da zein baldintzatan izango duten zilegi egiteko lanaldiaren zati bat hartzea, lanbide karreraren maila bakoitzean, prestakuntza, programa, beka, ikerketa klinikorako edo kudeaketarako proiektu eta antzeko jarduerarako.

5. artikulua. Mailaz igotzeko baldintzak.

1. Mailaz igotzeko, Foru Lege honen 6.1. artikuluan aipatzen den puntuazioa izan behar da, eta, aldi berean, aintzat hartuko da bai zenbat urte eman diren jarduera profesionalean eta bai laguntzako, hobekuntzako eta lanbide eguneratzeko jardueretan, hartu ere honela:

a) Eskatutako puntuazio osoaren %50, segun eta zenbat urte eman diren maila horretan, zerbitzuan emandako urte oso bakoitzarengatik puntu bana kontatuz, Foru Lege honen 6.1. artikuluan aipatzen den gehieneko puntuazioraino.

b) Eskatutako puntuazio osoaren %50 laguntza jarduerak ebaluatzeko baldintzak eta lanbide hobekuntzakoak gaindurik izateagatik, Foru Lege honen 7. artikulua agintzen duenaren arabera.

2. Mailaz igotze horrek artikulua honetan eskatzen diren baldintzak betetzen direla frogatzen den egunaren hurrengo urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

6. artikulua. Maila bakoitzeko egonaldiak eta mailaz igotzeko eskatzen den puntuazioa.

1. Lanbide karrerako maileara igotzeko, ondoren aipatzen diren puntuazioak eta egonaldiak frogatu beharko dira:

	Egondako urte bakoitzeko behar den puntuazioa	Baremoaren puntuazioa	Oso tara behar den puntuazioa
I. mailan	5	5	10
II. mailan	7	7	14
III. mailan	8	8	16
IV. mailan	5	5	10
V. mailan	–	–	–

2. Egondia kalkulatzeko, lanpostua jabetzan edukita Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan emandako zerbitzu urteak hartuko dira aintzat, Foru Lege honen 1.1. artikuluan aipatzen diren izendapenetako batekin. Europako Batasuneko estatuetako osasun sistema publikoetan lanpostua jabetzan edukita emandako zerbitzuak kontatzeko, Foru Lege honen bigarren xedapen gehigarriko bigarren puntu eta bigarren eta hirugarren xedapen iragankorretan xedaturikoari jarraituko zaie. Orobat, ondorio guztietarako kontatuko da zerbitzu berezietan egondako denbora guztia, edozein administrazio publikotan izendapen libreko postu batean zerbitzuak ematen egoteagatik.

7. artikulua. Baremoa eta helburuen zehaztapena.

1. Ebaluaziopeko aldi egindako lan jarduera erregelamendu bidez onesten den baremoaren arabera kontatuko da.

2. Baremoak banaka baloratuko ditu, batetik, laguntza jarduera, eta, bestetik, zuzendaritzakudeaketa, ikerketa eta garapen teknikorako jarduerak.

3. Laguntza jarduerako idaztirako finkatu den puntuazioa gutxienez baremoak mailaz igotzeko eskatzen duen puntuazio osoaren erdia izanen da, eta ebaluatzeko, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan helburuak zehaztu eta emaitzak baloratzeko sistema erabiliko da, erantzukizun partekatuen eta karrerako subjektu diren

profesionalen partehartze benetakoaren printzipioak aintzat hartuz.

4. Zuzendaritza-kudeaketa, prestakuntza, ikerketa eta garapen teknikoaren idazatian honakoak baloratuko dira: prestakuntza etengabeko jarduerak borondatezkoak, hala irakastekoak nola ikastekoak, Osasun Sistema nazionalaren kreditazio prozeduren arabera. Baremoan, bestetik, ikerketa jarduerak ere hartuko dira kontuan, adibidez zentro eta zerbitzuetako antolamendu eta lan sistemetan eragin zuzena duten hobekuntza proiektuak itxuratu eta gauzatzea, eta bai zuzendaritza eta kudeaketa jarduerak ere.

8. artikulua. Ebaluazio sistema.

1. Profesional bakoitzaren helburu eta emaitzak aintzat hartuta laguntza jardueraren ebaluazioa urtero eginen da, ekitaldia bukatuta.

Kudeaketa-zuzendaritza, prestakuntza eta ikerketa eta garapen teknikorako jardueren gaineko ebaluazioa interesatuak hala eskatuta eginen da, interesatu hori maila aldaketa bat egiteko moduan dagoenean.

2. Ebaluazio prozedura erregelamendu bidez ezarriko da, eta betiere honako elementuak izanen ditu:

a) Autoebaluazioa prozedura elementu oinarriko gisa, profesionalen beren iritzia erabat aintzat hartuta.

b) Ebaluaziopeko langileak parte diren Osasun Eskualde Oinarrizkoaren zerbitzu edo lantaldearen helburuak definitzen eta iristen norberak izan duen partehartzearen ebaluazioa, kasuko unitatearen arduradunak egina.

c) Zentroko zuzendaritzaren txostena. Zuzendaritza horrek autoebaluazioa jaso eta bere txostena emanen du, harekin ados dagoen ala ez azalduz.

d) Ebaluazio Batzordeak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari egiten dion proposamena, hurrengo idazatian finkatzen diren baldintzetan.

3. Profesional bakoitzak, zerbitzuaren edo osasun eskualde oinarrizkoaren arduradunak eta kasuko zuzendaritzak egiten dituzten balorazioen artean desadostasunik ez baldin badago, Ebaluazio batzordeak baremoaren aplikazioari dagozkion alderdi formalak bete daitezzen begiratzea beste lanik ez du izanen.

Bestela, Ebaluazio batzordeak arrazoiengainean erabakiko du zer balorazio eman behar zaion profesional bakoitzari, eta erabaki hori lotes-

lea izanen da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak maila aldaketaren gainean hartu behar duen ebazpenari begira. Ebazpen hori bai zentroaren zuzendaritzari eta bai interesatuari emanen zaie aditzera.

9. artikulua. Maila jakin bateko egonaldia betetzearen ondorioak.

1. Maila jakin batean hainbat urte egon izanagatik lorturiko puntuazioak honako ondorioetako bat izanen du kasuko langilearentzat:

a) Mailaz igotzea, baldin eta gainera 5. artikuluan maila bakoitzera igotzeko behar den puntuazioa osatzeko ezartzen diren baldintzak betetzen baditu.

b) Maila berean geratzea ez baldin bada iristen 6.1. artikuluan mailaz igotzeko finkatzen den puntuaziorik. Horretara, gero batean mailaz igotzeko baldintza bakarra izanen da lanbide hobekuntza eta eguneratze jardueren gaineko ebaluazio irizpideak betetzea, Foru Lege honetako 7. artikulua-aren arabera eskatuak.

10. artikulua. Ebaluazio Batzordea.

Berriazko Ebaluazio Batzordeak eratuko dira honako eginkizun eremuetarako:

– Oinarrizko Osasun Laguntza eta Adimen Osasuna

– Laguntza Espezializatua.

Ebaluazio Batzordeak parekideak izanen dira, eta zortzi kide izanen dituzte. Horietako lau Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak izendatuko ditu; beste lauak, berriz, eremu bakoitzeko fakultatiboaren artetik izendatuko dira: bat sindikatuen ordezkariak proposatua eta beste hiruak batzorde tekniko laguntzakoek proposatuak, erregelamendu bidez ezarriko den prozeduraren arabera.

11. artikulua. Kreditazioa

1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak kasuko Ebaluazio Batzordeak hala eskatuta, kreditazio formal bat emanen du fakultatibo bakoitzak iritsi duen lanbide karrerako maila frogatzeko.

Xedapen gehigarriak

Lehenbizikoa. Lanbide karrerako osagarriaren zenbatekoak.

1. Lanbide karrerako osagarriaren urteroko zenbatekoak, 1996. urteari dagozkionak honakoak dira:

- II. maila 350.420 pta.
- III. maila 700.840 pta.
- IV. maila 1.051.260 pta.
- V. maila 1.401.680 pta.

2. Aurreko idazatian aipatu diren zenbatekoak urtero eguneratuko dira, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak Nafarroako Foru Komunitateren zerbitzuko langileen soldatarako unean-unean finkatzen duen gehikuntza-ehunekoren arabera.

Bigarrena. Egoera bereziak

1. Foru Lege honetan arautzen den lanbide karrerako sistema Foru Lege honen 1.1. artikuluan aipatzen diren langileei aplikatuko zaie, Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako zuzendaritza, zuzendariordetza, burutza edo zuzendaritza-erantzukizuna duen beste edozein kargutan aritzen diren bitartean.

2. Osasun Sistema Nazionalaren beste eskualde zerbitzuetan lanbide karrerako sistemak garatzen ez diren artean, 1996tik aurrera Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan lanpostu bat jabetzan erdietsi duten edo erdietsiko duten langileak, Foru Lege honen aplikazio eremuko izendapena dutelarik, Europako Batasuneko estatuetako osasun sistema publikoetan emandako zerbitzuak frogatzen badituzte (lanpostua jabetzan zeukatela), lanbide karrerako I. mailan sartuko dira.

Behin sartu direlarik, Ebaluazio Batzordeak ebaluatu eginen du zenbat urtetako jabetza-egonaldia duten eta zenbateko merezimenduak hartu behar zaizkien aintzat alegatu dituzten eguneratze eta hobekuntza jarduerengatik. Prosposamen hori oinarri, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ebatziko du lanbide karrerako zein mailatan sartu behar den fakultatiboa.

IV.a izanen da goreneko maila eta betiere Nafarroako Osasun Zerbitzuan egon beharreko denbora gutxienekoa bete beharko da eta bai V. mailara pasatzeko lanbide hobekuntzako baldintzak ere.

3. Kupo eta eskualdeko langileak Oinarrizko Osasun Laguntzako ekipoetako edo Laguntza Espezializatuko zerbitzu hierarkizatuetako lanpostuetan sartzen badira, eta beren lanaldia oro har haietan ematen badute, dagokien lanbide karrerako mailan sartuko dira, kontuan harturik zenbat urtetako jabetza-egonaldia duten eta betiere Hirugarren Xedapen gehigarriko eskalari jarraituz.

4. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuekin aldi baterako kontratua duten langileak, sar-

tzeko eta izendatzeko Medikuntza eta Zirujiako edo Farmaziako lizentziatu titulua eskatu bazitzaie, erabat sartuko dira lanbide karrera sisteman, lanpostua jabetzan eskuratzen duten momentuan.

Lege honek indarra hartzen duenetik, aurreko lerroaldean aipatzen diren langileak ebaluaziopean sartzen dira lanpostua jabetzan duten beren lankideen baldintza beretan, baldin eta langile horiek urteko lanaldiaren gutxienez %50 ebaluatu behar zaien lanpostu horretantxe eman badute.

1996ko urtarrilaren 1etik Lege honek indarra hartu arte aldi baterako emandako zerbitzuei, erregelamendu bidez ezarriko den prozeduraren arabera eginen zaie ebaluazioa.

Ebaluatu beharreko zerbitzu urteak aintzat hartuko dira aldi baterako kontratua duten langileak lanpostua jabetzan eskuratzen badute.

5. 1995eko abenduaren 31ra arte aldi bateko kontratuarekin emandako zerbitzuak ez zaizkie aintzat hartuko lanbide karrerako kontuetarako, ez gaur egun lanpostua jabetzan dutenei, ez gero batean jabetza eskuratzen dutenei ere.

6. Langileen ordezkarietza organoetako kideek legeak lanaldia osorako ezartzen duen ordu kreditua baldin badute eta egoera horretan irauten duten bitartean mailaz igotzeko ez zaie eskatuko ez ebaluatuko, egonaldiko baldintzez gainera, prestakuntza, ikerketa eta garapen teknikoko jardueren dagokien baremoko idazatia betetzea besterik.

Xedapen iragankorrak

Lehenbizikoa. Moldatze iragankorreko mailen sendotzea.

1. Foru Lege honen aplikazio eremuan sartzen diren langileak, 1996ko urtarrilaren 1ean 1992tik 1995ra bitarte indarrean zen moldatze iragankorraren eremuan bazeuden, 1995eko abenduaren 31n moldatze iragankorreko maila gisa aitortua zuen lanbide karrerako maila ber hartan sartuko da. Foru Lege honek indarra hartzen duenetik aurrera ondorioak izanen dituzten igoerak Foru Lege honen 5 eta 6. artikuluetako baldintza orokorren menpe geratuko dira, hurrengo puntuan xedatzen denaren arabera.

2. Aurreko araudiaren arabera aitortu zitzaie azken moldatze iragankorreko mailan sartu zirenetik emandako zerbitzu urteak, lanpostua jabetzan zeukatela, kontuan hartuko dira hurrengo maila igoerarako.

Foru Lege honen 6.1. artikulua arabera mailaz igotzeko eskatzen diren egonaldi-urteengatiko puntuazioak ez dira eskatuko Foru Lege honek indarra hartzen duenetik mailaz aldatzeko eskatzen den egonaldia betetzeko falta diren urteen parte proportzionalean baizik.

Baremoagatiko puntuak ere, mailaz igotzeko eskatu diren urteak baloratu diren proportzio berean eskatuko dira. Osasun arloko eguneratze eta hobekuntza jarduerak ebaluatzeko, zilegi izanen da 1996tik aurrera egindako jarduerak ere kontatzea, interesatuak frogatzen baditu.

Bigarrena. 1996, 1997, 1998 eta 1999. urteetako maila aldaketa.

Foru Lege honen Lehen Xedapen Iragankorreko lehen idazatiak aipatzen dituen langileei dagokienez, zilegi izanen da hasieran esleitu baino goragoko maila batera aldatzea, baldin eta 1996ko urtarrilaren 1ean, 1997ko urtarrilaren batean, 1998ko urtarrilaren 1ean edo 1999ko urtarrilaren 1ean fakultatiboak hala eskatzen badu, eta Europako Batasunaren estatuetako osasun zerbitzu publikoetan, 1.1 artikuluan aipatu direnetako izendapen batekin jabetzan emandako zerbitzu urteen arabera. Honako urteak kreditatu behar dira langileak daukan kategoriaren arabera.

KATEGORIAK	
BFE ETA OOLTKO MEDIKUAK	ZERBITZUBURUAK ETA ATALBURUAK, KLINIKOAK
II. mailara igotzeko, 5 urte	II. mailara igotzeko, 6 urte
III. mailara igotzeko, 14 urte	III. mailara igotzeko, 12 urte
IV. mailara igotzeko, 22 urte	IV. mailara igotzeko, 18 urte
V. mailara igotzeko, 29 urte	V. mailara igotzeko, 24 urte

Moldatzea fakultatibo bakoitza dagoen kategoriari dagokion urte eskalaren arabera eginen da, kontuan harturik lanbide karrerako helburu diren lanpostuetan dituen jabetzako zerbitzu urteak zenbat diren.

Igoera berriak Foru Lege honetan arautzen den prozeduraren arabera eginen dira. Merezimenduak baloratzeko ere zilegi izanen da 1996tik aurrera irabazitakoak kontatzea, interestauak alegatu nahi baditu.

Hirugarrena. Lanbide karrerako sistemara sartu berriak diren langileak.

Foru Lege honen aplikazio eremuan dauden langileak, baldin eta 1992-1995 aldian Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan aritzen baziren baina aldi hartan indarra zuen fakultatiboan moldatze iragankorrean ez baziren sartu, lanbide karrerako sisteman sartuko dira sistema horrek

indarra hartzen duenetik lehenbiziko hilaren lehen egunetik aurrera.

Langile bakoitzaren moldatzea behin besterik ez da eginen, eta fakultatibo bakoitzari lanbide karrerako maila bat esleitu zaio segun eta zein maila tokatzen zaion Europako Batasuneko estatuetako osasun sistema publikoetan jabetzan emandako zerbitzu urteen arabera, betiere Foru Lege honen 1.1 artikuluan aipatzen direnetako izendapen batekin ondoren zehazten den bezala:

– 5 urte baino gutxiago, I. maila.

– 5 urtetik gora, II. maila

– 14 urtetik gora, III. maila.

– 22 urtetik gora, IV. maila

– 29 urtetik gora, V. maila

Lanpostuan jabetzan emandako zerbitzu urteen soberakina hurrengo maila igoerentarako hartuko da kontuan. Mailaz igotzeko Foru Lege honen 6.1. artikulua eskatzen dituen egonaldi urteetarako behar diren puntuazioak ez dira eskatuko Foru Lege honek indarra hartzen duenetik mailaz aldatzeko eskatzen den egonaldia betetzeko falta diren urteen parte proportzionalean baizik.

Baremoagatiko puntuak ere, mailaz igotzeko eskatu diren urteak baloratu diren proportzio berean eskatuko dira. Osasun arloko eguneratze eta hobekuntza jarduerak ebaluatzeko zilegi izanen da 1996tik aurrera egindako jarduerak ere kontatzea, interesatuak frogatzen baditu.

Igoera berriak Foru Lege honetan arautzen den prozeduraren arabera eginen dira. Merezimenduei dagokienez, 1996tik aurrera irabazitakoak kontatuko dira.

Azken xedapenak

Lehenbizikoa. Zilegi izango da Foru Lege baten bidez finkatzea lanbide karrerako sistema Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko beste langileei ere aplikatzea, Osasun Sistema Nazionalean edo Nafarroako Funtzio Publikoan antzeko irizpideak ezartzen badira. Aplikatzeko, beti ere negoziazio kolektiboa egin beharko da.

Bigarrena. Nafarroako Gobernuak Foru Lege hau argitaratu eta hurrengo hiru hilabetetan onetsi beharko ditu 7 eta 8. artikuluetan aurreikusten diren baremoak, osasun arloko fakultatiboan lanbide karrera aplikatzeko behar direnak.

Hirugarrena. Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Laugarrena. Esku ematen zaio Nafarroako Gobernuari Foru Lege hau egoki garatu eta betetzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Xedapen indargabetzailea

Foru Lege honetan agintzen direnei kontra egiten dieten maila bereko edo gutxiagoko xedapen guztiak indargabetzen dira.

Foru Legea, tributu arloko aldaketei buruzkoa

AKATS ZUZENKETA

Aldizkari Ofizialaren gaztelerazko edizioan argitaratu den lege-testuan baino ez da agertu akatsa.

Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, administrazioarekin kontratatu ahal izateko betekizunen arloko hainbat kontzepturi dagokiona

EMENDAKINAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Biltzarreko Erregelamenduko 106. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Ondoko Foru Lege proposamenari emendakinak aurkezteko epea **1999ko otsailaren 12ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea: Nafa-

roako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, administrazioarekin kontratatu ahal izateko betekizunen arloko hainbat kontzepturi dagokiona,

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea”.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Lege proposamena, lanaldia 35 ordukoa izan dadin laguntzeko eta lan denbora banatzeko neurri publikoak ezartzeari buruzkoa

EMENDAKINAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Biltzarreko Erregelamenduko 106. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Lanaldia 35 ordukoa izan dadin laguntzeko eta lan denbora banatzeko neurri publi-

koak ezartzeari buruzko Foru Lege proposamenari emendakinak aurkezteko epea **1999ko otsailaren 12ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea”.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Lege proposamena, eskubide sozialen gutun baterako

EMENDAKINAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Biltzarreko Erregelamenduko 106. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Eskubide sozialen gutun baterako Foru Lege proposamenari emendakinak aurkezte-

ko epea **1999ko otsailaren 22ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea”.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

E saila:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere borondate politikoa adierazten du elkartzeko, eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko organo bat sortzearen alde. “Mesa por la Paz de Navarra-Nafarroako Bakearen aldeko Mahaia” izanen du izena

«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

«Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere borondate politikoa adierazten du elkartzeko, eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko organo bat sortzearen alde. “Mesa por la Paz de Navarra-Nafarroako Bakearen aldeko Mahaia” izanen du izena”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko Taldeek eta Foru Parlamentarioek emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren arabera, hurrengo mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

IU/EB de Navarra-ren iritziz Nafarroako Parlamentua, Nafarroako Foru Komunitateko erakunde demokratiko gorena, osatzen dugun alderdiok behar diren ahalegin guztiak egin behar ditugu ETAREN su-etenaren ondoren sorturiko bake-prozesua indarrean jartzeko, dagokigun erantzukizunagatik.

Hainbestetan defendatu izan badugu erabakieremu nafar bat, besteren ezberdina, egon bada-

goela, bihur dezagun eremu hori eraginkor eta egiatzko. Gara dezagun geure lana bakea lortzeko bidean, Nafarroan elkarbizitza sozial eta politikorako esparru bat ezartzeko, zeinak guztiak barne hartuko dituzten funtsezko adostasun batzuetan izanen duen oinarri.

Sen onekoa da normalkuntza politikorako bidea luzea eta zaila izanen dela ulertzea. Hori dela eta, uste dugu alderdi politiko guztiak ahaleginak egin behar dituztela adostasun demokratikoa lortzeko eta guztien arteko elkarrizketa politikoa bultzatzeko.

Hori dela eta, IU/EB de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak bere borondate politikoa agertzen du ondokoa egiteko:

Biltzeko, eztabaidatzeko eta erabakitze organo bat sortu, "Mesa por la Paz de Navarra-Nafarroako Bakearen aldeko Mahaia" izena izanen duena.

Organo horretan parlamentuko indar guztiak hartuko dute parte; izan ere, hori delako osaketa politiko proportzionatu eta demokratikoa arazo politikoak eztabaidatzeko eta haiei konponbidea emateko. Horren izaera eta osaketari dagokienez, behar direnak prestatuko dira.

"Mesa por la Paz de Navarra-Nafarroako Bakearen aldeko Mahaia" izenekoa behar den baliabidea izanen da bai ETAREN su-etenaren ondoren sortu den agertokia bultzatu eta sendotzeko, bai elkarrizketaren bidez elkarbizitzarako konponbide eta esparruak bilatzeko ere, 1996ko urtarrilean Nafarroako indar politikoen parte handi batek erabakitakoaren ildotik. Xede horretarako gako politikoa elkarrizketa izanen da, betiere

ondoko irizpideei jarraituz: lankidetzaz, adostasuna, inor ez baztertua eta demokrazian sakontzea. Era berean, beharrezkoa izanen da beste lurralde batzuetan sortzen diren antzeko foroekin koordinatuta egotea.

"Mesa por la Paz de Navarra-Nafarroako Bakearen aldeko Mahaia" egonkorra izanen da;

ETAren su-etenaren ondoren sorturiko egoerari buruz eztabaidatzeko, lan egiteko era erabakiak hartzeko tresna izanen da.

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 13an

Bozeramailea: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da haur-hezkuntzako lehen zikloa arautu dezan

«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

«Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da haur-hezkuntzako lehen zikloa arautu dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko Taldeek eta Foru Parlamentarioek emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

"Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduak xedaturikoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatua eta bozkatua izan dadin:

LOGSEk hezkuntza-izaera ematen dio, zalan-tzarik gabe, haurtzaro-epeari, bi zikloetan: "Lehen zikloa 3 urteetaraino izango da, eta bigarrena hiru urtetik sei urteko adinera" (9. art.). Bi zikloetarako, Legeak, argi eta garbi, hezkuntza-helburuak ezartzen ditu, epe horrek duen gizarte-helburua eta eginkizun bikoitza beti ere aitortuz.

Ezin da beste inolako irakurketarik egin Legearen edukia okertu gabe, eta larria izango litzateke Nafarroako hezkuntza-administrazioak hezkuntza-helburu eta edukiak kontuan hartzeari uko egitea

LOGSEk aipatzen duen garapen fisiko, adimenerako, afektibo, sozial eta moralari dagokionean. Puntu horretan, LOGSEk argi eta garbi uzten ditu gauzak.

Begi-bistakoa da Foru Administrazioak betebeharrak bat duela eskolatua izan dadin eskatzen duen populazioari behar besteko postu-kopurua bermatzeko. Legeak hezkuntzaren fase honetaz arduratzen diren zentroak (haur-eskolak eta haurtzaindegia kasu) egokitzeko ezarri duen epea bukatzean, beharrezkoa da hezkuntzaren fase berri hau ezar dadin arauak onestea. Izan ere, jadanik existitzen dena egokitu eta baliabide berriak beste erakunde publikoekin modu planifikatuan koordinatuz piskanaka garatuko dituen hezkuntza-esparru batean kontuan hartu beharreko alderdi guztien antolamendua azaldu behar da.

Sektore publikotik gizarte-beharrizantzeko administrazio-erantzunik ez izatearen ondorioz, eskaintza pribatua gehitu egin da, eta zegoen gizarte-eskaria ikastetxe pribatuetara desbideratu da; horrela, sare pribatuak ez bezala, 2 urtekoentzat ikasgelak eskaintzeko ahalmenik izan ez duten ikastetxe publikoekin konkurrentzia desleiala sortu da. Fase hori obligaziozkoa ez izateak ez du inola ere salbuesten hezkuntza-fase bakoitzetarako administrazio-erakundeek ezartzen dituzten betekizunak betetzetik.

Bizitzaren lehen urteetako fase honek pertsonaren ondorengo garapenean duen garrantzia, arazoei aurrea hartzeko eta, oro har, konpentsazio gisa, LOGSEk adierazten du. Gizarte-desberdintasuneko egoeretan, garaiz eskolatu ahal izatea bermatu behar da, eta beharizan bereziei tratamendu goiztiarra eman behar zaie, norberak aurrera egiteko dituen aukerak maximizatzen. Horregatik, obligaziozkoak ez diren beste fase

batzuetara Nafarroan hedaturiko doakotasuna mantentzea beharrezkoa da, gure ustez, haur-hezkuntzako lehen ziklorako.

Fase horretaz arduratzen diren ikastetxe guztiak egoki den neurrian eta behar bezala barne hartzeko beharrezkoa den ahalegina dela-eta, komenigarria litzateke horren ezarpenean piskanaka eta urratsez urrats jardutea. Horregatik, komenigarria litzateke Nafarroako sare publikoan 2 urtekoentzako unitateen eskaera masiboari erantzutea lehendabizi, sare pribatuan egiten ari diren bezalaxe, eskaintza zenbait zentro publikotatik egiteari eta hori nahi duten familien askatasunari oztoporik ez jartzeko.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

1) Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bi hilabeteren epean haur-hezkuntzaren lehen zikloa (0-3 urte) arautu dezan, LOGSEk "Haur Hezkuntza" kapituluan ezartzen duenari jarraituz, eta espazio, langileria, ikasle-ratio, lorpide, curriculum, zerbitzu eta hezkuntza-fase horretaz Nafarroan arduratzen diren zentro guztiei eskatzekoak diren beste baldintzei buruzko betebeharrak homogeneiza ditzan.

2) Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du doako hezkuntza-eskaintza publikoa antola dezan, dagoen gizarte-eskaerari erantzuteko eta aukera-berdintasuna nahiz gizarte-desberdintasunen konpentsazioa ziurtatzeko.

3) Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bi hilabeteren buruan Biltzar honi plan bat aurkez diezaion, hezkuntza-eskaintza publikoa piskanaka ezartzeari eta koordinatzeari buruzkoa, honako eduki hauek jasoko dituen: 0-3 urte bitarteko adinaren faseaz arduratzen diren zentroak hezkuntza-sare publikoan sartzeari, Haur Hezkuntzako zentro berriak sortzea, kontrola eta irabazi-asmorik gabeko beste entitate batzuekin hitzarmenak sinatu ahal izatea.

4) Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2 urteko adinekoentzako postuen eskariei erantzun ahal izateko moduko hezkuntza publikoaren eskaintza izan dezan 1999/2000 ikasturtean, haur-hezkuntzako lehen zikloa piskanaka ezartzeko lehen urrats gisa, sare publikoaren eta itunpeko sare pribatuaren arteko desoreka ekiditeko.

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 29an

Bozeramailea: José Miguel Nuin Moreno

F saila:
GALDERAK

N-240 A errepidearen Berriozar-Aitzoain-Berriobeiti zatiari buruzko galdera

ION IÑAKI ERRO ARMENDARIZ FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen Ion Iñaki Erro Armendariz Foru Parlamentario jaunak N-240 A errepidearen Berriozar-Aitzoain-Berriobeiti zatiari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Ion Iñaki Erro Armendarizek, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikiriko Foru Parlamentarioak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean ondoko galdera egin du.

Nafarroako errepideetako puntu beltzetako bat dugu N-240-A errepidearen zati bat; hain zuzen ere, Berriozarko saihezbidearen eta Aitzoain eta Berriobeitiko gurutzegunearen artekoa.

Berrikitan egindako azterlan baten arabera, 11.000tik gora ibilgailu dabil egunero zati horre-

tan; izan ere, gune horretan biltzen baitira Iruñetik Donostira eta Gasteiza doan trafikoa, Berriobeiti, Itza, Txulapain eta Ultzamako zirkulazioa, eta industrialdeek sortutako ibilgailuen-mugimendu garrantzizkoa.

Nafarroako Parlamentuak 1998an onetsi zuen Errepideen Plana, zeinaren baitan zegoen aipatu errepidearen zati hori bikoiztea, eta hainbat biribilgu egitea, zirkulazioa hobetu eta gertatzen diren pilaketak ekiditeko, arriskua gutxitzearen, beti ere.

Aipatu jarduketak abiarazteko obrak ez dira hasi oraindik.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dut:

- Zer eperako aurreikusi du Nafarroako Gobernuak N-240-A errepidearen Berriozar-Aitzoain-Berriobeiti zatiko jarduketa?

- Zer jarduketa egingen dira aipatu zatian, eta zer data aurreikusi du Nafarroako Gobernuak jarduketetako bakoitza hasi eta amaitzeko?

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 8an

Foru Parlamentarioa: Ion Iñaki Erro Armendariz

Nafarroako errepideetan istripu gehiago izateari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Nafarroako errepideetan istripu gehiago izateari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako Foru Parlamentarioak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

1998an zehar Nafarroako errepideetan izandako istripu-kopuruak gogoeta negatiboa eragiten du, hildakoen kopuruak %24 egin zuelako gora, Barne Ministerioko Trafiko Zuzendaritza Nagusiarren (TZN) datuen arabera.

Gehikuntza horrek 90eko hamarkadaren hasieratik nabaritzen ari zen beheranzko joera apurto du, eta nabarmenki gairitu du nazio-esparruan 1997 eta 1998 artean izandako batez besteko errepide-hilkortasunaren hazkuntza, azken hori % 6,2koa izan baita.

Zehazki, TZNren datuen arabera, 1997an trafiko-istripuen ondorioz 76 hildako izan zen, eta amaitu berri den urtean, ordea, 96 pertsona hil dira gure Komunitateko errepideetan.

Nafarroako errepideetan izandako istripu-kopuruaren hazkuntzari buruzko honako galdera hau erantzutea eskatzen da:

1.- Gure Komunitateko errepideetako istripu-kopuruari buruzko estatistikaren jarraipenik egiten al du Nafarroako Gobernuak? Zer nolakoa? Baiezkoan: Barne Ministerioko TZNk eskainitako arekin bat al dator?

2.- 1998an jasan duten trafikoaren heina kon-tuan hartuz, istripu-kopururik handiena izan duten errepideei buruzko daturik ba al dauka Nafarroako Gobernuak? Eta Nafarroako Gobernuak aurkezturiko duela gutxiko soluzio-azterlan batean adierazitako puntu beltzei dagokienez? Aipaturiko datuetan oinarrituz, zer ondoriotara iritsi da Nafarroako Gobernuak?

3.- 1998ko datuak direla-eta, jarduketa praktikoaren bat egitea aurreikusten al du Nafarroako Gobernuak (Bide Segurtasunari buruzko Kanpainak, puntu zehatzetan hobekuntzak egiteko jarduketak edo bestelakoak)? 2010. urterako errepideetako istripu-kopurua %40 jaisteko Europako Batasunak eginiko gomendioak betetzeko, zer nolako aurreikuspen dauka Nafarroako Gobernuak, adierazitako datuak ezagutu ondoren?

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 12an

Foru Parlamentarioa: José Javier Sánchez Turrillas

Baztanen eta Malerrekan galondoak erre eta oihan-lanak egitearen ondorioz sortu diren suteei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Baztanen eta Malerrekan galondoak erre eta oihan-lanak egitearen ondorioz sortu diren suteei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako Foru Parlamentarioak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Joan den urtarrilaren 7an zortzi mendi-sute izan ziren Baztan eta Malerrekako Mendietan; eskaini diren datuen arabera, behe-basoz, sasiz eta zuhaitz-mota ezberdinez osaturiko 200 hektarea baino gehiago kiskali ziren.

Suterik larrienak Amaiurren (Alkurruntz mendia) eta Gartzainen izan baziren ere, honako eremu hauek ere kaltetuak gertatu ziren: Elbete (Amezti mendia), Erratzu (Iñartegiko eremua), Otsondo aldea (Gorramendi mendia), Elgorriaga (Mendaur mendia), Gaztelu eta Belate.

Jadanik urte bukaerarako, Oketa mendian, zeina Elizondo eta Elbeteren artean kokatua baitago, hegi bat eta gailurra kiskalita geratu ziren;

berdin gertatu zen eremu txikiago batzuekin, Iruritan, Zugarramurdin eta Donezteben.

Arrasto guztiek adierazten dutenez, larreak edo basa-belarrak erretzeagatik (ohizkoa da garai horretan) gertatu ziren sute horietako asko.

Baztan eta Malerrekako eremuetan larreak erretzeagatik eta hainbat basogintza-lan egiteagatik gertaturiko suteei buruzko honako galdera hauei erantzutea eskatzen da:

1.- Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren aburuz, aipaturiko suteek eragindako kalteak garrantzitsuak izan al dira? Eta ekosistema bakoitzak jasandako ondorioak?

2.- Gure Komunitatean, aipaturikoez beste eremutan antzeko suterik gertatu al da? Zeinetan? 1998ko urriaren 15etik hasi eta Parlamentuko galdera hau erantzuten den arte: larreak errez edo suaren bidezko basogintza-lanak eginez buruturiko hobekuntza-tratamenduaren ondorioz sorturiko zenbat sute detektatu du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak? Zein udalerritan, eta zeintzuk izan dira eraginak, lurrazalaren eta erabileren ikuspegitik?

3.- Zenbat eskaera aurkeztu dira Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan 1159/1998 Foru Aginduan ezarritakoari jarraituz? Horietako zenbati eman die aipaturiko Departamentuko Biodibertsitatea Zaintzeko Zerbitzuak aldeko txostena? Zenbat baimen eman dira? Zenbat jarduketa zehatu dira Nafarroako Oihan Ondarea Babestu eta Garatzeari buruzko 13/1990 Foru Legeak ezarritakoari jarraituz?

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 12an

Foru Parlamentarioa: José Javier Sánchez Turrillas

Etxebizitzak saldu edo alokatzeko ekintza publizitarioen araugabekeria eta akatsei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak etxebizitzak saldu edo alokatzeko ekintza publizitarioen araugabekeria eta akatsei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako Foru Parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Osasun eta Kontsumo Ministerioko Zuzendaritza Nagusiko Kooperazio Batzorde Nazionalak ikuskapen-kanpaina ofizial bat egin du 1997an zehar, etxebizitzak saldu edo alokatzeko eskaintza, sustapen eta ekintza publizitarioei buruz. Kanpaina horren ondorioen arabera, etxebizitzaren eskaintza edo sustapenetan, hirutik bik araugabekeriak zituzten.

Txostenaren arabera, kontratuaren dokumentazioari buruzko informazioaren gaineko arauak dira gehien urratzen direnak; saltzaileari eta etxe-

ko instalazioei buruzko informazio-akatsak ere antzeman dira, orobat prezioen atalean.

Gure Komunitatean diharduten Kontsumitzaile Elkarrekin ere urteroko jarduketa-txostenetan azpimarratu dutenez, jasotzen dituzten erreklamazio-rik gehienek etxebizitzarekin dute zerikusia.

Etxebizitzak saldu edo alokatzeko ekintza publizitarioen araugabekeria eta mentsak direla-eta, hurrengo galderari erantzutea eskatzen dut:

1.- Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ba al du datu berekirik etxebizitzak saldu edo alokatzeko ekintza publizitarioen araugabekeria eta mentsei buruz? Osasun eta Kontsumo Ministerioko aipatu txostenak Nafarroako datuak ere baditu? Aurreko bi galderetako edozeini baietz erantzun ezkerro: zer datu ditugu eskura gure Komunitatean aipatu gaiei buruz?

2.- Nafarroako Gobernuak egiten al du kanpaina berezirik etxebizitzak saldu edo alokatzeko ekintza publizitarioak kontrolatu eta jarraitzeko? Noiz egin zuen horietako azkena? Zer datu atera ziren? Zer jarduketa praktikoa ondorioztatu zen horietatik?

3.- Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du legedia betearazteko jarduketa bereziren bat, etxebizitzak saldu edo alokatzeko ekintza publizitarioetan?

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 12an

Foru Parlamentarioa: José Javier Sánchez Turrillas

Etxabakoitz auzoa bi osasun eskualde oinarrizkotan banatzeko aukerari buruzko galdera

M^a ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARIO ANDREA EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak Etxabakoitz auzoa bi osasun eskualde oinarrizkotan banatzeko aukerari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

M^a Isabel Arboniés Bermejok, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako Foru Parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezazkien:

Aurtengo Nafarroako Aurrekontu Orokorretan, UPN eta NDEk emaniko botuekin onetsitako xedapen gehigarri baten bidez, Nafarroako Gobernuari baimena eman zitzaion osasun eskualde oinarrizkoak egunera zitzaizkien. Osasun eskualde oinarrizkoen mugak aldatzen zituen foru dekretuaren zirriborroa abenduan igorri zitzaizkien udal eta osasun eskualdeetako kontseiluei, aurretik entzunak izan zitezkeen.

Aldatuko denetako bat Barañaingo Osasun Eskualdea izanen da; osasun eskualde horri "Ipar Etxabakoitz" izeneko aldea esleituko zaio. Horrek Etxabakoitz bi eremutan zatituko du, eta auzoa erabat banatuko. Auzoak, ordea, arlo guztietan, lan orokorra behar du.

Auzoa bi eremutan zatitzerakoan, zatietako bat (Vistabella, Barcos, Urdanoz, Arostegi Etorbidea)

Zizurrera pasako da. Horrela, jendeak Zizurreko Osasun Etxera joan beharko du. Beraz, jendeak dezente urrun izanen du osasun etxea; hara heltzeko oztopo fisiko nahiko garrantzitsuak gainditu behar dira eta garraio publikoa ere eskasa da.

Horrezaz gainera, kontuan izan behar da biztanle guztiak oso ezberdin eta urrunak direla, eta ahulena -Etxabakoitz, hain zuzen- ahalegin nabarmena egitera behartzen dela oinarrizko osasun zerbitzua izateko; zerbitzu horrek, ordea, herritarrengandik gertu behar du.

Bestalde, Zizur-Etxabakoitzko Osasun Eskualdeko Kontseilua irailean bildu, eta aurreikusitako neurri horrekin erabateko desadostasuna adierazi zuen; organo horrek bi aukera aurkeztu zituen: bata, Etxabakoitzek Barañainekin bat egin dezala; bestea, barruti berezizat hartu, eta osasun etxe propio bat eraiki dadila -auzo elkarteak ere horixe eskatzen zuen.

Hori guztiagatik, hauxe jakin nahi da:

1.- Etxabakoitz bi eremutan zatitu, eta auzoa erabat banatzeari buruz Zizur-Etxabakoitz Osasun Laguntzaren Unitateak, Etxabakoitzeko Auzo Elkarteak eta Osasun Eskualdeko Kontseiluak esandakoei zer irizten die Osasun Departamentuak?

2.- Zein da eskualde oinarrizkoaren aldatetako kalteetako dituen udalen iritzia?

3.- Sortu den eztabaidaren aurrean, izanen al da kontuan Etxabakoitz eskualde berezizat hartzea eta horko biztanleak (iparrekoak eta hegokokoak) oinarrizko osasun zentro bakar batera gerturatzeari, horrela auzoko gizarte-batasuna errazteko?

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 15ean

Foru Parlamentarioa: María Isabel Arboniés Bermejo

Gazteen artean GIBi aurea hartzeko jardueretan jarraitzeari buruzko galdera

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARIO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak Gazteen artean GIBi aurea hartzeko jardueretan jarraitzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnalek, Eusko Alkartasunako Foru Parlamentarioak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako gazteen artean GIBari aurea hartzeko jarduketan programa bati ekin zaio FOSHE-

Zen ardurapean, 1998an zehar. Nafarroako hainbat herritan ere egin dira zenbait ekintza.

Dirudienez, ez FOSHEZek, ez programaren egileek eta ekintzen bateragileek ez dakite programak aurrera jarraituko duen.

Galdera honen xedea da hurrengo berri izatea:

– Nafarroako gazteen artean GIBari aurea hartzeko programa horren jarduketek jarraitu egingen dute?

– Baiezkoan, noiz, zein departamenturen menpe eta zein zerbitzutan. Arrazoi eta guztizko azalpena.

– Ezezkoan, zergatia, arrazoi eta guzti.

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 18an

Foru Parlamentarioa: Begoña Errazti Esnal

Osasun Departamentuaren 17050-3 lerroaren helburuei buruzko galdera

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARIO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak Osasun Departamentuaren 17050-3 lerroaren helburuei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnalek, Eusko Alkartasunako Foru Parlamentarioak, Biltzarreko Erregelamen-

duaren babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako 1999ko aurrekontuetan, Osasun Departamentuaren 12. programan, 17050-3 lerroa dago.

– Lerroaren helburuak.

– Ba dago ja gastu-konpromisorik?

– Zertan pentsatu dute gastatzea, justifika bezate.

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 18an

Foru Parlamentarioa: Begoña Errazti Esnal

Laneko segurtasun eta osasunaren gaineko gutxieneko xedapenak ezarri zituen 1215/97 Errege Dekretuaren garapenari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak laneko segurtasun eta osasunaren gaineko gutxieneko xedapenak ezarri zituen 1215/97 Errege Dekretuaren garapenari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Parlamentuko Askotariko Taldeari atxikiriko "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentarioak, Erregelamenduan ezarririkoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

Uztailaren 18ko 1215/1997 Errege Dekretuak segurtasun eta osasun xedapen gutxieneko batzuk ezarri zituen, zertarako-eta langileek makinak, aparatuak eta instalazioak erabiltzeko. Urte

beteko epea ere eman zuen enpresek beharrezko berrikuntzak egin zitzaten.

Ildo horretatik, bi kontusail berezi sortu ziren Nafarroako Aurrekontu Orokorretan.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dut:

1. Aipatu epea igaro ondoren, Gobernuak zer balantze egiten duen lortu diren emaitzei buruz.

2. Nafarroan kokatuta dauden enpresetatik zeintzuk jaso dituzten laguntzak, beraien egoera 1215/1997 Errege Dekretuak eskatzen duenari egokitzeko.

3. 1215/1997 Errege Dekretuak finkatu duen egokitze-helburua erdiesteko, oraindik laguntza behar duten enpresen zerrenda.

4. Zer neurri garatuko dituen Nafarroako Gobernuak Nafarroan kokatuta dauden enpresa guztiek bete ditzaten laneko segurtasun eta osasun arloko betebeharrak, Nafarroan gertatzen diren lan-istripuen kopuru kezagarria murrizteko.

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 19an

Foru Parlamentarioa: Martín Landa Marco

Nekazaritza eta elikadura sektorearen egoerari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak nekazaritza eta elikadura sektorearen egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Parlamentuko Askotariko Taldeari atxikiriko "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentarioak, Erregelamenduan ezarririkoaren

babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

Nekazaritza eta elikaduraren sektorearen egoera kontuan izanda, aintzat hartuz, era berean, Nafarroako enpleguan eta BPGn duen garrantzia, hauxe jakin nahi dut:

1go.- Jatorrizko deituren banakatzea, hurrengo datuak zehaztuz:

A) 1997 eta 1998 urteetako ekoizpena, guztira.

B) 1997 eta 1998 urteetako salmentak.

C) 1997 eta 1998 urteetako mozkin garbiak.

D) Enpresa nagusiak (deiturei lotuak), salmenten arabera.

E) 1997 eta 1998 urteetan egindako inbertsioak eta Nafarroako Administrazioetik emandako dirulaguntzak.

2gn. Sustapen kanpainak.

A) Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargurako dirulaguntza izan duten sustapen kanpaina

berezi edo orokorren banakatzea (1997 eta 1998 urteetan egindakoak).

B) Bestelako kanpainak, Nafarroako Gobernuak horien berri izan baldin badu.

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 19an.

Foru Parlamentarioa: Martín Landa Marco

Saiek aziendari oldartu omen zaizkiola-eta, hainbat gairi buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak saiek aziendari oldartu omen zaizkiola-eta, hainbat gairi buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Parlamentuko Askotariko Taldeari atxikiriko "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentarioak, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

1997ko zati handi batean, eta, batez ere, 1998koaren hasieran, oso aipatua izan zen Nafarroa, saiek aziendari ustez oldartu zitzaizkiolako. 1998ko urtea igaro denez, eta beste ikuspegi batetik, hauexek jakin nahi dut:

1. Ingurugiro Departamentuak zer balantze egin duen horri buruz, eta zenbat kasu gertatu diren 1998an. Horietatik zenbatetan jaso duten dirulaguntzaren bat. Zehatz bidez: non gertatu den, zenbatekoa, zer egiaztapen-mota egin den eta, hala bada, erreklamazioa, egoki iritzitako egiaztapenen ondoren, justifikaziorik ez izatekotan.

2. Horri buruz egin diren txostenen zerrenda, egilea edo egileak, eta 1997an eta 1998an ordaindu diren kostuak.

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 19an.

Foru Parlamentarioa: Martín Landa Marco

Nafarroako Gobernuak RTVE ente publikoarekin izenpetu duen hitzarmenari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak Nafarroako Gobernuak RTVE ente publikoarekin izenpetu duen hitzarmenari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Parlamentuko Askotariko Taldeari atxikiriko "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentarioak, Erregelamenduan ezarririkoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Gobernuak eta TVEko ente publikoak hitzarmen bat izenpetu zuten. Hitzartutako kopuruaren truke, programazio berekiko orduak gehitzea aurreikusi zuten, besteak beste, Hitzarmen horretan.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

1. Hurrengoei buruzko balantze zehatza: programaturiko denbora berriak, audientzia, etab.

2. 1999rako aurreikusi diren zenbatekoak, eta 1998ko urtearen gaineko balantzeak horri buruz dituen aurreikuspenak.

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 19an.

Foru Parlamentarioa: Martín Landa Marco

Arto transgenikoaren laborantzaren egoerari buruzko galdera*MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak arto transgenikoaren laborantzaren egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Parlamentuko Askotariko Taldeari atxikiriko "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentarioak, Erregelamenduan ezarririkoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

Zenbait landareren geneak aldatzeko bidean ari dira, laborantzaren emaitzak hobetearren, hainbat barietateren bitartez. Arto transgenikoa dugu adibideetako bat, eta badirudi frantziar auzitegiek arto hori Frantziar merkaturatzeko debekua ezarri dutela aldi baterako, badaezpada ere.

Berrikitan argitaratu den ikerlan baten arabera, Kimioterapiako Nazioarteko Sozietateko medikuen %57k uste du Novartis multinazional suitza-

rraren arto transgenikoa berehala debekatu beharko litzatekeela, arrisku-balioespenak eta azterketa sakonagoak egin beharko liratekeelako, aipatu produktua merkaturatu baino lehen. Gogoratu beharra dago Espainian zilegi dela aipatu arto hori hazi eta merkaturatzea.

Aipatu enpresak merkaturatzen duen artoa animalientzako da, eta geneak aldatu dizkiote, zeden-izurriteak kutsa ez dezan. Hala ere, ez dakigu oraindik zer eragin izan dezakeen, elikadura-katearen bitartez.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dut:

1.- Nola dago arto transgenikoaren hazkundera Nafarroan? Barietateen kopurua, hektareak, zertarako erabiltzen den, nagusiki, etab. Baita Nafarroan zenbat arto hazten den ere, transgenikoa zein ez.

2.- Mota horretako artoa hazten dutenak zer laguntza jasotzen duten, Foru Administrazioetik, Europatik edo bestelakoetatik.

3. Zer kupo dagokion Foru Komunitateari, eta betetzen den ala ez.

4. Nafarroaren arto-ekoizpena eta Nafarroari esleitu zaizkion kupoak, azken hiru urteotan.

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 19an

Foru Parlamentarioa: Martín Landa Marco

Escudera putzuan bildutako ura ponpatzeari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak Escudera putzuan bildutako ura ponpatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Parlamentuko Askotariko Taldeari atxikiriko "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentarioak, Erregelamenduan ezarririkoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Parlamentuan egindako hainbat bileraren ondoren, jarduketa-plan bat onetsi zuten, Escuderako putzuan bildutako gehiegizko ura ponpatu eta haren kalteak saihesteko; izan ere, aipatu putzu horren azalera aski handitua baitzegoen, 100 ha inguru hartzen baitzuten.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dut:

– Ponpaketa-proiektua abiarazi ondoren, zein da egungo egoera?

– Zenbat hektarea dago urpean, oraindik?

– Zer arazo berri edo aspaldikok eragiten dio bere garaian erabaki zuten konponbideari? Zeintzuk lirateke irtenbideak?

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 19an.

Foru Parlamentarioa: Martín Landa Marco

Aldrin pestizida erabiltzeari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak Aldrin pestizida erabiltzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Parlamentuko Askotariko Taldeari atxikiriko "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentarioak, Erregelamenduan ezarririkoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

Nazioarteko hitzarmen bat izenpetu dute Rotterdamen, pestiziden eta bestelako gai kimiko-

en salerosketa kontrolatzeko. Estatu izenpetzaileek berresten dutenean indarrean sartuko den hitzarmen horren helburuak hauexek dira: pestizida eta bestelako gai kimikoei buruzko informazio osatuagoa ematea estatu inportatzaileei; izan ere, gai horien etiketetan derrigorrez jarri beharko baita osasunari eta ingurugiroari eragin diezazkieten kalteei buruzko informazioa.

Neurri horrekin batera, pestizida eta kimika-gai arriskutsu gehienak arian-arian gutxitu eta deusezteko konpromiso orokorrerantz ere jo beharko da.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dut:

1. Aldrin pestizidaren erabilera nola dagoen Nafarroan, eta zer laborantzatan erabiltzen den.

2. Azken bi urteotan Nafarroan saldu diren kopuruak, gutxi gorabehera.

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 19an.

Foru Parlamentarioa: Martín Landa Marco

DDT pestizida erabiltzeari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak DDT pestizida erabiltzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Parlamentuko Askotariko Taldeari atxikiriko "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentarioak, Erregelamenduan ezarririkoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

Nazioarteko hitzarmen bat izenpetu dute Rotterdamen, pestiziden eta bestelako gai kimiko-

en salerosketa kontrolatzeko. Estatu izenpetzaileek berresten dutenean indarrean sartuko den hitzarmen horren helburuak hauexek dira: pestizida eta bestelako gai kimikoei buruzko informazio osatuagoa ematea estatu inportatzaileei; izan ere, gai horien etiketetan derrigorrez jarri beharko baita osasunari eta ingurugiroari eragin diezazkieten kalteei buruzko informazioa.

Neurri horrekin batera, pestizida eta kimika-gai arriskutsu gehienak arian-arian gutxitu eta deusezteko konpromiso orokorrerantz ere jo beharko da.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dut:

1. DDT pestizidaren erabilera nola dagoen Nafarroan, eta zer laborantzatan erabiltzen den.

2. Azken bi urteotan Nafarroan saldu diren kopuruak, gutxi gorabehera.

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 19an.

Foru Parlamentarioa: Martín Landa Marco

Dieldrin pestizida erabiltzeari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak dieldrin pestizida erabiltzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Parlamentuko Askotariko Taldeari atxikiriko "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentarioak, Erregelamenduan ezarririkoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

Nazioarteko hitzarmen bat izenpetu dute Rotterdamen, pestiziden eta bestelako gai kimiko-

en salerosketa kontrolatzeko. Estatu izenpetzaileek berresten dutenean indarrean sartuko den hitzarmen horren helburuak hauexek dira: pestizida eta bestelako gai kimikoei buruzko informazio osatuagoa ematea estatu inportatzaileei; izan ere, gai horien etiketetan derrigorrez jarri beharko baita osasunari eta ingurugiroari eragin diezazkieten kalteei buruzko informazioa.

Neurri horrekin batera, pestizida eta kimika-gai arriskutsu gehienak arian-arian gutxitu eta deusezteko konpromiso orokorrerantz ere jo beharko da.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dut:

1. Dieldrin pestizidaren erabilera nola dagoen Nafarroan, eta zer laborantzatan erabiltzen den.

2. Azken bi urteotan Nafarroan saldu diren kopuruak, gutxi gorabehera.

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 19an.

Foru Parlamentarioa: Martín Landa Marco

Lindano pestizida erabiltzeari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak lindano pestizida erabiltzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Parlamentuko Askotariko Taldeari atxikiriko "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentarioak, Erregelamenduan ezarrikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

Nazioarteko hitzarmen bat izenpetu dute Rotterdamen, pestiziden eta bestelako gai kimiko-

en salerosketa kontrolatzeko. Estatu izenpetzaileek berresten dutenean indarrean sartuko den hitzarmen horren helburuak hauexek dira: pestizida eta bestelako gai kimikoei buruzko informazio osatuagoa ematea estatu inportatzaileei; izan ere, gai horien etiketan derrigorrez jarri beharko baita osasunari eta ingurugiroari eragin diezazkieten kalteei buruzko informazioa.

Neurri horrekin batera, pestizida eta kimika-gai arriskutsu gehienak arian-arian gutxitu eta deusezteko konpromiso orokorrerantz ere jo beharko da.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dut:

1. Lindano pestizidaren erabilera nola dagoen Nafarroan, eta zer laborantzatan erabiltzen den.
2. Azken bi urteotan Nafarroan saldu diren kopuruak, gutxi gorabehera.

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 19an.

Foru Parlamentarioa: Martín Landa Marco

HCH pestizida erabiltzeari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak HCH pestizida erabiltzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Parlamentuko Askotariko Taldeari atxikiriko "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentarioak, Erregelamenduan ezarrikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

Nazioarteko hitzarmen bat izenpetu dute Rotterdamen, pestiziden eta bestelako gai kimiko-

en salerosketa kontrolatzeko. Estatu izenpetzaileek berresten dutenean indarrean sartuko den hitzarmen horren helburuak hauexek dira: pestizida eta bestelako gai kimikoei buruzko informazio osatuagoa ematea estatu inportatzaileei; izan ere, gai horien etiketan derrigorrez jarri beharko baita osasunari eta ingurugiroari eragin diezazkieten kalteei buruzko informazioa.

Neurri horrekin batera, pestizida eta kimika-gai arriskutsu gehienak arian-arian gutxitu eta deusezteko konpromiso orokorrerantz ere jo beharko da.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dut:

1. HCH pestizidaren erabilera nola dagoen Nafarroan, eta zer laborantzatan erabiltzen den.
2. Azken bi urteotan Nafarroan saldu diren kopuruak, gutxi gorabehera.

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 19an.

Foru Parlamentarioa: Martín Landa Marco

Captafol pestizida erabiltzeari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak captafol pestizida erabiltzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Parlamentuko Askotariko Taldeari atxikiriko "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentarioak, Erregelamenduan ezarririkoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

Nazioarteko hitzarmen bat izenpetu dute Rotterdamen, pestiziden eta bestelako gai kimiko-

en salerosketa kontrolatzeko. Estatu izenpetzaileek berresten dutenean indarrean sartuko den hitzarmen horren helburuak hauexek dira: pestizida eta bestelako gai kimikoei buruzko informazio osatuagoa ematea estatu inportatzaileei; izan ere, gai horien etiketetan derrigorrez jarri beharko baita osasunari eta ingurugiroari eragin diezazkieten kalteei buruzko informazioa.

Neurri horrekin batera, pestizida eta kimika-gai arriskutsu gehienak arian-arian gutxitu eta deusezteko konpromiso orokorrerantz ere jo beharko da.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dut:

1. Captafol pestizidaren erabilera nola dagoen Nafarroan, eta zer laborantzatan erabiltzen den.

2. Azken bi urteotan Nafarroan saldu diren kopuruak, gutxi gorabehera.

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 19an.

Foru Parlamentarioa: Martín Landa Marco

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 50. urteurrena dela-eta argitaratu diren testuei buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 50. urteurrena dela-eta argitaratu diren testuei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Parlamentuko Askotariko Taldeari atxikiriko "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentarioak, Erregelamenduan ezarririkoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

Parlamentario honek mozio bat aurkeztu zuen 1998ko urtarrilaren 29an. Nafarroako Parlamentuak ahobatez onetsi zuen mozio hori urte bereko martxoaren 10ean. Mozio horrek hainbat jarduketa planteatu zuen, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 50. urteurrena ospatzeko.

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala eta oinarrizko eskubideei buruzko beste lege-testu batzuk ere argitaratzea zen onetsitako gaietako bat.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dut:

1. Zer testu argitaratu ziren horri buruz, eta zenbat ale.

2. Zer banaketa egin den, zer tokitara, egunak, eta abar.

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 19an.

Foru Parlamentarioa: Martín Landa Marco

Harrobien ingurugiro-eraginak zuzentzeari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak harrobien ingurugiro-eraginak zuzentzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako Foru Parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du erantzun diezaioten:

Azken urte hauetan, ingurugiro-eraginaren gaineko ebaluazioak gero eta usuago erabiltzen den teknika dira; onartuta dago horixe dela biderik egokiena natur baliabideak zaintzeko eta ingurugiroa defendatzeko. Beste aldetik, ebaluazio horiei buruzko berariazko arauak ere egin dira.

1986tik aurrera asko dira ingurugiro-eraginari buruzko ebaluazioei buruzko arau eta erregelamenduak; zehazki, irailaren 30eko 1131/1989 Errege Dekretuak ezarri zuen derrigorrezkoa dela ingurugiro-eraginari buruzko aitorpena egitea aire zabalean mineralak erazteko baimena emateko administrazio-erabakia eman baino lehen.

Ingurugiro-eraginari buruzko azterlanaren edukia barne hartu behar ditu erazketa-lanak egiten diren inguruaren deskribapena, haren gainean gertatuko diren eragin nagusiak, horiek zuzentzeko proposatzen diren neurri zuzentzaile-

ak eta jarduera bukatu eta ondoren egiten den Leheneratze Plana.

Hori dela eta, Nafarroako harrobietako jarduerak sortzen dituen ingurugiro-eraginak zuzentzeari buruzko ondoko galderari erantzutea eskatzen da.

1. Zein izan da aire zabalean (harrobiak) mineralen erazketa egiteko baimendutako lekuen bilakaera? Zenbat harrobi daude lanean gure erki-degoan? Nafarroan 1998ko abenduaren 31n lanean ari diren harrobien zerrenda eskatzen dut; bertan adieraziko dira jardueraren izena, zein udalerritan egiten den, zer nolako ustiapena den eta zein material erazten den, jarduera horretako tonak/urtea erlazioa, jarduera baimendu zen eguna eta jarduera hori amaitzeko ezarri den epe-muga.

2. Halaber, horietako bakoitzaren legezko egoerari buruzko azalpena eskatzen da, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak emandako baimenari dagokionez; alegia, jakin nahi da Departamentuak baimena eman duen, edo baimen hori bidean dagoen, bai eta Ingurugiro-eraginari buruzko azterlanarekin batera bere egunean aurkeztu zen Leheneratze Plana indarrean dagoen ala ez. Zenbat eta zein dira 1998ko abenduaren 31n Leheneratze Plana burutzen ari diren harrobiak? Adierazi zer izen duten, udalerrria, mota eta materiala, eta leheneratze jardueren amaiera noizko aurreikusi den.

3. Nola kontrolatzen du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Leheneratze Planean aurreikusitako jarduerak benetan burutzen direla?

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 12an

Foru Parlamentarioa: José Javier Sánchez Turrillas

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ingurugiro-interesa duten aldeei buruz toki entitateekin izenpetu duen hitzarmenen gaineko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ingurugiro-interesa duten aldeei buruz toki entitateekin izenpetu duen hitzarmenen gainean egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako Foru Parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du erantzun diezaioten:

Azken urte hauetan ugaritu egin dira Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak toki entitateekin sinaturiko hitzarmenak ingurugiroaren aldetik interes berezia duten alderdietan jarduteko.

Komunikabideei esker jakin ahal izan denez, hitzarmen horiek gure erkidegoko natur gune askok hain beharrezkoak dituzten erabileren zaintza eta antolamenduari buruzko jarduketak burutzeko egin dira.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ingurugiroaren aldetik interesa duten eremuei buruz toki entitateekin sinaturiko hitzarmenak direla eta, ondoko galderari erantzutea eskatzen da:

1. Horrelako zenbat hitzarmen sinatu dira 1996 urtetik aurrera? Zein toki entitateekin? Zein izan da hitzartutako jarduera, zenbat diru hitzartu da eta zer iraunaldi eman da kasu bakoitzean?

2. Zenbat eskari egin dituzte toki entitateek modu horretako jarduerak burutzeko Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuarekin akordio edo hitzarmenak sinatuz? Zein toki entitatek egin dituzte eskari horiek?

3. Zein legek, erregelamenduk edo arauk arautzen du hitzarmen horiek sinatzea? Zein irizpideren bidez erabaki da jarduketa mota bat edo beste hautatzea ingurugiro-interesa duen eremu jakinetan? Zer dela-eta bota dira atzera bestelako eskariak? Aurrekontuko zein kontusailen kargura ordaindu dira Nafarroako Gobernuak hitzarmen horietarako jarri dituen diruak ekitaldi bakoitzean?

4. Egiten al du Nafarroako Gobernuak hitzarmen horien bidez etorri diren jarduerak erdietsita-ko helburuen jarraipena? Nola? Zein da helburu horien emaitzei buruz egiten duen balorazioa? Aurreikusi al du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak jarduera jakin batzuei lehentasuna emateko arauen bat idatzi, onetsi edo erabiltzea?

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 19an

Foru Parlamentarioa: José Javier Sánchez Turrillas

Ibai arroetako natur arriskua neurtzeari eta ingurugiro-baliabideen kudeaketari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak ilbai arroetako natur arriskua neurtzeari eta ingurugiro-baliabideen kudeaketari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako Foru Parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du erantzun diezaioten:

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak, Ingurugiro Zuzendari Nagusiaren 1455/1998 Ebazpenaren bidez, onetsi zuen arrisku naturalaren maila baloratu eta ingurugiro-baliabideak kudeatzearen Nafarroako ibaietako arroen mugapena eta ezaugarri hidrologikoak aztertzearen kontratazioaren lizitazioaren deialdia.

Aipatu lana burutzeko epea 1998ko abenduaren 31n bukatu zen.

Nafarroako ibaietako arroen arrisku naturalaren maila baloratu eta ingurugiro-baliabideak kudeatzea dela-eta, ondoko galderari erantzutea eskatzen da:

1. Zer enpresa, entitate, elkarte edo erakunderi esleitu zitzaion arrisku naturalaren maila baloratu eta ingurugiro-baliabideak kudeatzearen Nafarroako ibaietako arroen mugapena eta ezaugarri hidrologikoak prozedura irekian eta presako lehiketaren bidez egiteko lana? Zenbatean esleitu zen aipatu espedientea?

2. Zein dira lan horren arabera gure erkidego ibaietako arroetan dauden arrisku naturalen ezaugarri nagusiak? Horietako bakoitzerako, zein dira ingurugiro-baliabideak kudeatzeko burutuko diren jarduketak? Egin al da lan horretan proposaturiko jarduketaren balorazioa? Ba al dago haiek burutzeko egutegirik?

3. Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak jarduketa jakinen bat egitea 1999 urtean zehar, aipatzen ari garen lanaren ondorioen bidetik? Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak kontratatzea edo proposatzea arrisku naturalaren maila baloratu eta ingurugiro-baliabideak kudeatzearen Nafarroako ibaietako arroen mugapena eta ezaugarri hidrologikoak aztertzearen beste lanen bat edo jada egin denaren osagarri izan den besteren bat?

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 21ean

Foru Parlamentarioa: José Javier Sánchez Turrillas

Ega eta Urederrako ibaiertzak ingurugiroaren aldetik bereoneratzeko azterlanari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Ega eta Urederrako ibaiertzak ingurugiroaren aldetik bereoneratzeko azterlanari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako Foru Parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du erantzun diezaioten:

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak, Ingurugiro Zuzendari Nagusiaren 478/1998 Ebazpenaren bidez, onetsi zuen presako lehiaketa irekiaren bidez, ingurugiroa berreskuratzeko asmoz Ega eta Urederra ibaietako ur-bazterrak aztertzeke kontratazio espedientea.

Aipatu lana burutzeko epea 1998ko abenduaren 31n bukatu zen.

Ingurugiroa berreskuratzeko asmoz Ega eta Urederra ibaietako ur-bazterrak aztertzeke lana dela eta, ondoko galderei erantzutea eskatzen da:

1. Zer enpresa, entitate, elkarte edo erakunderi esleitu zitzaion arrisku naturalaren maila baloratu eta ingurugiro baliabideak kudeatzearen Nafarroako ibaietako arroen mugapena eta ezaugarri hidrologikoak prozedura irekian eta presako lehiaketa bidez egiteko lana? Zenbatean esleitu zen aipatu espedientea?

2. Zein dira lan horren arabera Ega eta Urederra ibaietako ur-bazterretako arazo nagusiak? Horietako bakoitzaren ingurugiro-leheneneratzea erdiesteko, zein jarduketa zehatz proposatzen da? Egin al da lan horretan proposaturiko jarduketan balorazioa? Ba al dago haiek burutzeko egutegirik?

3. Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak jarduketa jakinen bat egitea 1999 urtean zehar, aipatzen ari garen lanaren ondorioen bidetik? Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak kontratatzea edo proposatzea egindako lanaz gainera beste lanen bat edo jada egin denaren osagarri izan den besteren bat?

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 21ean

Foru Parlamentarioa: José Javier Sánchez Turrillas

“Lurzorua eta etxebizitzak eskuratu eta sustatzea” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak “Lurzorua eta etxebizitzak eskuratu eta sustatzea” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Parlamentuko Askotariko Taldeari atxikiriko "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentarioak, Erregelamenduan ezarririkoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

1998ko aurrekontu-ekitaldia bukatu ondoren, "Lurzorua eta etxebizitza erosi eta sustatzea" izeneko kontusailaren gorabeherak zehatz-mehatz ezagutzeko asmoz, 1998ko abenduaren 31ko azken emaitza eta benetan bete dena jakin nahi dut.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dut:

Bete denaren banakatzea. Aipa bitez: zenbat erabili den lurzorua eskuratzeko, zenbat metro koadro eskuratu diren, eskuratutako lurzatiak non dauden, jarduteko aurreikuspenak eta epeak, gutxi gorabehera.

Era berean, kontusail honen kargura egin daitezkeen bestelako jarduketan berri ere izan nahi dut, horien banakatzearekin batera.

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 21ean

Foru Parlamentarioa: Martín Landa Marco

Alokairuko etxebizitzekin zerikusia duten kontusailen aurrekontu-betetzeari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak alokairuko etxebizitzekin zerikusia duten kontusailen aurrekontu-betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Parlamentuko Askotariko Taldeari atxikiriko "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentarioak, Erregelamenduan ezarririkoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

Arrekontu-urtea itxi ondoren, alokairuko etxebizitzetarako politikez ari diren kontusailen gorabeherak zehatz-mehatz ezagutzeko asmoz, 1998ko abenduaren 31ko azken emaitza eta benetan bete dena jakin nahi dut.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dut:

Alokairuari buruzkoan bete denaren banakatzea, eta burututako jarduketetan erabili den kontusaila eta zenbatekoa zehaztea: maizterrentzako dirulaguntzak (jarduketa-kopurua eta zenbateko ekonomikoa); bereiz bitez sustatzaile pribatuen jarduketak eta VINSArenak, eta aipa bedi babes ofizialeko etxebizitza den -arabide bereziko zein orokorreko-, edo bestelakoa.

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 21ean

Foru Parlamentarioa: Martín Landa Marco

Etxebizitzak zaharberritzearekin zerikusia duten kontusailen aurrekontu-betetzeari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak etxebizitzak zaharberritzearekin zerikusia duten kontusailen aurrekontu-betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marcok, Parlamentuko Askotari-ko Taldeari atxikiriko "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentarioak, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

Arrekontu-urtea itxi ondoren, etxebizitzak zaharberritzea xede duten kontusailen gorabeherak zehatz-mehatz ezagutzeko asmoz, 1998ko abenduaren 31ko azken emaitza eta benetan bete dena jakin nahi dut.

Etxebizitza zaharberritzeari buruzkoan bete denaren banakatzea: herri jakin batzuetako alde zaharretako zaharberritzeaz ari naiz, eta baita beste toki eta herri batzuetan egindakoez ere. Zehatz bitez herriak, erabilitako zenbatekoak eta zenbat jarduketa onetsi diren.

Zaharberritze politiketan 1998ko aurrekontuen kargura gastatu den guztiari buruzko datuak. Aipa bitez onetsitako jarduketak eta herrien arabera banaketa.

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 21ean

Foru Parlamentarioa: Martín Landa Marco

“Etxebizitza-jarduketetarako dirulaguntzak eta sorospenak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak “Etxebizitza-jarduketetarako dirulaguntzak eta sorospenak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Parlamentuko Askotari-ko Taldeari atxikiriko "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentarioak, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

Arrekontu-urtea itxi ondoren, etxebizitzak xede dituzten kontusailen gorabehera zehatz-mehatz ezagutzeko asmoz, 1998ko abenduaren 31ko azken emaitza eta benetan bete dena jakin nahi dut.

“Etxebizitza-jarduketetarako dirulaguntzak eta sorospenak” izeneko aurrekontu-kontusaila dela eta, zein izan den bete denaren banakatzea, hurrengoei buruz:

Etxebizitza erostea:

- Babes ofizialeko etxebizitzak, araubide berezia.
- Babes ofizialeko etxebizitzak, araubide orokorra.
- Prezio tasatuko etxebizitza librea.
- Burututakoa, guztira, eta zenbat etxebizitza egin diren.

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 21ean

Foru Parlamentarioa: Martín Landa Marco

Tuterako Atalaya zentroko egoiliar bati gertaturikoei buruzko galdera

M^a ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARIO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak Tuterako Atalaya zentroko egoiliar bati gertaturikoei buruz egindako galderaren biderape-na onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean agitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

M^a Isabel Arboniés Bermejok, "Izquierda Unida- Ezker Batua de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diea-zaioten:

Florentino Viedma Quesada Tuterako Atalaya Zentroan bizi da; zentro hori Agedna, SL-k kudeatzen du. Egun, ordea, Bideko Ama Birjina Ospitaleko Psikiatria Unitatean dago, Atalaya Zentroak horrela eskatu zuelako: kontrol-galtzealdi bat izan zuen zentroan.

Familiak emaniko informazioaren arabera, eta baita espedientea eta egiten ari zaion behaketaren arabera, ez zaio antzematen izan dituen aldatketak argitzeko moduko portaera bortizik ezta agresibitate ere.

Florentino Viedma Quesadak adimen hutsune larria du, eta Atalaya Zentroan bizi da 1990ko otsailetik hona. Familiak bi aldiz nabaritu ditu, etxera etortzerakoan, erredura aztarnak eskuetan, eta, lehenago, bizkarrean eta besoetan markak.

Atalaya Zentroak birritan eskatu die Tuterako udaltzainei etor daitezten Florentinori eusteko, eta zentroan esposatua ere egon da.

Florentinok, hitzik egiten ez badu ere, gai da adierazi nahi duena ulertarazteko, eta aditzera eman du ez duela, inolaz ere, Atalaya Zentroa itzuli nahi. Bere adierazpenak ikusita, azpimarra-

tzekoa da jotzen dutela adierazten duela; ikusita-koak ikusita, familiak uste du Florentinok tratu txarrak jasotzen dituela.

Hori guztiagatik, hauxe jakin nahi da:

1.- Ba al daki Ongizate Departamentuak Florentino Viedmak poliziaren ekintza jasan eta esposatua izan zela Atalaya Zentroan?

2.- Ikertu al dira egoiliar honi gertatutakoak?

3.- Aipatutako zentrorra itzultzeko duen beldurra ikusita, baloratu al du Ongizate Departamentuak komeni ote den egoera hori berriz aztertzea eta gaiso hori egokia izan dakioken beste leku batera eramatea?

4.- Izaera bortitzekoa inondik izan ez, eta iker-tu al da zergatik izan dituen Florentinok bortizkerialdi horiek? Bortizkerialdi horiek sortarazi ahal izan dizkion tratamenduren bat eman al zaio?

5.- Jakinarazi al dio Atalaya Zentroak Ongizate Departamentuari egoiliar horri buruzko ezein gora-behera, lekualdaketa eskaera edo pertsona horri buruzko beste ezein gauza?

6.- Ba al da jarduketa-protokolorik ahalmenak gutxiutuak dituzten egoiliarrak tratatzerakoan pertsona honi aplikatu zaizkion metodoak aplikatzeko edo ospital bateko unitatera eramateko? Jakinarazpenik egiten al zaie Ongizate Departamentuari edo familiari?

7.- Zer ezaugarri dituzte Atalayaren laguntza jasotzen dutenek? Zer langile kualifikatu ditu horiei laguntza emateko?

8.- Zer jarraipen egiten du Ongizate Departamentuak ematen den zerbitzuaren baldintza eta kalitateari buruz, eta nola kontrolatzen ditu laguntza jasotzen dutenekin izaten diren gorabeherak?

9.- Zer jarduketa egingen dira hemen aipaturiko gertakariak argitzeko eta zentroari egotz dakioken erantzukizunik dagoen ala ez zehazteko?

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 22an

Foru Parlamentarioa: María Isabel Arboniés Bermejo

Urritasun psikikoak eta trastorno mentalak dituztenei arreta egiteari buruzko galdera

M^a ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARIO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak urritasun psikikoak eta trastorno mentalak dituztenei arreta egiteari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

M^a Isabel Arboniés Berjemok, Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentuko Taldeari atxikitako Foru Parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1997 eta 1998 urteetan, Nafarroako Gobernuak ehun milioiko kontusaila ezarri zuen Gizarte Ongizate Departamentuko aurrekontuetan, urritu psikikoak eta adimen trastornoak dituzten pertsonen laguntza emateko Nafarroaz kanpoko zentro berezietan egonaldiak ordaintzearen.

1999rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan, Nafarroaz kanpoko egonaldiak ordaintzeko kontusaila 125 milioi pezetakoa izatera pasa da. % 25eko igoera izan da, beraz. Igoera horrek argi aski uzten du portaera-trastornoak dituzten pertsonen igoera; horietako gehienak erasokor edo desegokitu gisa sailkatuta daude, eta laguntza handiagoa eta horiei laguntza ematen dieten langileengan eta zerbitzuetan espezializazio hobea eskatzen dute.

Urritasun psikikoak edo/eta trastorno psikikoak eduki eta Nafarroatik kanpora joan beharrean daudenak Burgos eta Malagako zentroetara joaten dira. Horrek, derrigorrez, desterrua dakar berarekin, Nafarroatik urrun, gizarte ingurutik eta familietatik urrun; horrek larriagoa egiten du errealitatea onartzeko eta ahal den neurrian bizitzarekiko kontaktua normalizatze mugapen eta zailtasun handiak dituzten pertsona horien egoera. Beste aldetik, behartu egiten ditu familiak bidaia luzeak egitera; horrek, ezinbestez, urriagoa bihurtzen du haien arteko harremana.

Urruntasunak, halaber, gero eta zailtasun handiagoak sortzen ditu zentro itxi eta Nafarroatik urrun daudenetan (ia mila kilometro) bizi diren pertsona horiei ematen zaien laguntzaren beharrezko gainbegiratze eta kontrolerako. Hori dela eta, ia hutsaren hurrengo dira haiek bizi diren eta jasotzen duten laguntzaren baldintzen gaineko erantzukizun publikoa gauzatzeko aukerak.

Hori dela eta, jakin nahi da:

1) Aintzat hartzen bada gure erkidegoan, dirudienez, portaera-zailtasun larriak dituzten urritu psikikoen arloan behar handia dagoela, zergatik ateratzen ditu Nafarroako Gobernuak pertsona horiek Nafarroatik kanpo eta zergatik ez ditu erabiltzen laguntza horrek ekartzen duen baliabide publikoen gastuak haiei gure erkidegoan bertan laguntza emateko?

2) Nafarroako Gobernuak zein maiztasunarekin bisitatzen ditu pertsona horiei laguntza emateko zentroak eta zenbatean behin kontrolatzen ditu haien bizi-baldintzak?

3) Nolako ahalmena du Nafarroako Gobernuak gaixoei ematen zaien laguntza dela-eta betebeharrak eta baldintzak ezartzeko?

4) Nola egiten da Nafarroaz kanpo egiten diren zerbitzuen gaineko ikuskapena eta kontrola, eta zenbaterainoko ahalmen praktikoa du Ongizate Departamentuak aldaketak eta hobekuntzak planteatzeko pertsona horien bizi-kalitatean?

5) Noiztik bidaltzen ari dira urritasun psikikoa edo/eta portaera-trastornoak dituzten pertsonak Nafarroatik kanpora?

6) Zenbat pertsona daude une hauetan Nafarroatik kanpo eta zer zentrotan daude?

7) Zer kostu dute egonaldi horiek pertsona bakoitzeko, eta zenbat ordaindu du Nafarroako Gobernuak azken bost urte hauetan haiek Nafarroatik kanpo edukitzearen truke?

8) Zer nolako laguntzak jasotzen dituzte familiek Málaga, Burgoen eta beste toki batzuetan bizi diren beren ahaideak bisitatzera joateko.

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 28an

Foru Parlamentarioa: María Isabel Arboniés Bermejo

Ondasunak zaharberritzeko prozeduraren Kontratazio Mahaiari buruzko galdera

JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen José Miguel Nuin Moreno Foru Parlamentario jaunak ondasunak zaharberritzeko prozeduraren Kontratazio Mahaiari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Miguel Nuin Morenok, Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentuko Taldeari atxikitako Foru Parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Pablo Lorente Zapatería jaunak 1997ko urtarrilaren 20an Nafarroako ondasun higigarriak konterbatu eta konpontzeko laguntzak emateko iriz-

pideei buruz egindako galderari Nafarroako Gobernuak emandako erantzunean (1997ko otsailaren 20an), ondokoa esaten zen: "kontratazioei Kontratazio Mahaiaren aktak eranstean zaizkie".

Hori dela eta, ondokoak jakin nahi dira 1995eko urtarrilaren 1ean hasi eta 1998ko abenduaren 31 bitarteko aldiari buruz:

– Zeintzuk hartu duten parte Kontratazio Mahai horretan?

– Izan al da funtzionario ez den jenderik aipatu mahaian? Hala izanez gero, zein izan dira funtzionarioak ez direnak, zer dela eta hartu dute parte Mahaian eta zer eginkizun zituzten esleituta?

– Zein arauk erregulatzen eta babesten du aipatu Kontratazio Mahaiaren funtzionamendua eta osaketa?

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 29an

Foru Parlamentarioa. José Miguel Nuin Moreno

Legez kanpoko etorkinen seme-alabei osasun-laguntzari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak legez kanpoko etorkinen seme-alabei osasun-laguntzari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Parlamentuko Askotariko Taldeari atxikiriko "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentarioak, Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Madrilen salatu diren gertakariak Estatuko gainerako tokietan gertatzen denaren lagin txikia besterik ez direlako konbentzimendua badut; izan ere, legez kanpoko egoeran dauden gurasoek nekez salatuko dituzte egoera horiek, Estatutik kanpo bidaliko dituztela beldurrez.

Horiek horrela, Estatuko hainbat tokitako gizarte-erakundeek jendaurrean salatu dutena gogoan hartuta, eta Fiskaltzak, legez kanpoko etorkinen seme-alabei laguntzarik ez ematea dela-eta, burutu dituen jarduketak kontuan izanda, arazo sakon baten aurrean gaudela esan dezakegu: adin gabekoen zaintzak ezin du gurasoen lege-egoeraren, jatorriaren edo bizilekuaren menpe egon. Haur horientzako mediku-laguntza ukatzeak urra-

tu egiten baititu Espainiako Konstituzioa bera (39.4. artikulua), gure Estatuak izenpetu dituen nazioarteko hitzarmen batzuk (Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa, 1989koa), eta baita Espainian indarrean dagoen legedia ere (Atzerri-tartasun Legea, Adingabea Babesteko Lege Organikoa).

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dut:

Legez kanpoko etorkinen seme-alabei onetsi al zaie osasun-laguntzarako eskubidea bideratzen duen txartela Nafarroan?

Ezezkoan: Zergatik ez zaie aipatu txartela eman?

Noiz eta nola emanen zaie?

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 29an

Foru Parlamentarioa: Martín Landa Marco

Kutsadura sor dezaketen enpresei eta hartutako neurriei buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak kutsadura sor dezaketen enpresei eta hartutako neurriei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Parlamentuko Askotariko Taldeari atxikiriko "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentarioak, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Joan den urtea, 1998a, negargarria izan da Nafarroako ugaldeetako kutsadura eta fauna-hil-tzearen aldetik.

Beste isurketa kutsatzaile bat izan da, berriz ere. Oraingoan Ega ibaian izan bada ere, beste

hamaikatxo izan dira, dagoeneko... Dirudenez, ibaian bizi direnentzako kalteak txikiagoak izan dira oraingoan. Hala ere, horrelako gertakariak behin eta berriz agitzea benetan kezagarria bada, are larriago da Administrazioak, oro har, eta Gobernu honek, bereziki, erakutsi duten geldotasuna eta aurreikuspen-falta.

Onartezina da, inondik ere, akats edo axolagabekeria soil batek -badirudi isurketa sortu duen enpresaren arduradun batek halakotzak jo duela-ugaldearen bizitza arriskuan jartzea.

Ezinbestekoa da kutsadura sor dezaketen enpresek segurtasun sistema bat izatea, aipatu ditugun ondorioak ekiditeko, istripuren bat gertatuz gero.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dut:

Zer datu ditu Nafarroako Gobernuak kutsadura sor dezaketen enpresei buruz, eta zer neurri hartzeko asmoa du Lizarran gertatu direnen antzekoak ekiditeko?

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 19an

Foru Parlamentarioa: Martín Landa Marco

Ibaien kutsaduraren aurrean Ebroko Ur Konfederazioaren jarduketei buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak ibaien kutsaduraren aurrean Ebroko Ur Konfederazioaren jarduketei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Parlamentuko Askotariko Taldeari atxikiriko "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentarioak, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Joan den urtea, 1998a, negargarria izan da Nafarroako ugaldeetako kutsadura eta fauna-hiltearen aldetik.

Beste isurketa kutsatzaile bat izan da, berriz ere. Oraingoan Ega ibaian izan bada ere, beste

hamaikatxo izan dira, dagoeneko... Dirudenez, ibaian bizi direnentzako kalteak txikiagoak izan dira oraingoan. Hala ere, horrelako gertakariak behin eta berriz agitzea benetan kezagarria bada, are larriago da Administrazioak, oro har, eta Gobernu honek, bereziki, erakutsi duten geldotasuna eta aurreikuspen-falta.

Onartezina da, inondik ere, akats edo axolagabekeria soil batek -badirudi isurketa sortu duen enpresaren arduradun batek halakotzak jo duela- ugaldearen bizitza arriskuan jartzea.

Ezinbestekoa da kutsadura sor dezaketen enpresek segurtasun sistema bat izatea, aipatu ditugun ondorioak ekiditeko, istripuren bat gertatuz gero.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dut:

Zein izan da Ebroko Ur Konfederazioaren jarduketa gertatutako isurketari buruz? (Baldin eta jarduketaren bat burutu bada eta erasota bada go).

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 19an

Foru Parlamentarioa: Martín Landa Marco

Ega ibaiko bizidunek jasoko duten azkenengo isurketaren ondorioei buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak Ega ibaiko bizidunek jasoko duten azkenengo isurketaren ondorioei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Parlamentuko Askotariko Taldeari atxikiriko "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentarioak, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Joan den urtea, 1998a, negargarria izan da Nafarroako ugaldeetako kutsadura eta fauna-hiltearen aldetik.

Beste isurketa kutsatzaile bat izan da, berriz ere. Oraingoan Ega ibaian izan bada ere, beste hamaikatxo izan dira, dagoeneko... Dirudenez,

ibaian bizi direnentzako kalteak txikiagoak izan dira oraingoan. Hala ere, horrelako gertakariak behin eta berriz agitzea benetan kezkarria bada, are larriago da Administrazioak, oro har, eta Gobernu honek, bereziki, erakutsi duten geldotasuna eta aurreikuspen-falta.

Onartezina da, inondik ere, akats edo axolagabekeria soil batek -badirudi isurketa sortu duen enpresaren arduradun batek halakotzak jo duela-ugaldearen bitzita arriskuan jartzea.

Ezinbestekoa da kutsadura sor dezaketen enpresek segurtasun sistema bat izatea, aipatu ditugun ondorioak ekiditeko, istripuren bat gertatuz gero.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dut:

Zer eragin jasan dute ibaiko bizidunek isurketaren ondorioz, eta zer azterketa egin da Ingurugiro Departamentutik?

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 19an

Foru Parlamentarioa: Martín Landa Marco

Ingurugiro Departamentuak noiz izan zuen Ega ibaian gertaturiko azkenengo isurketa kutsatsailearen berri itauntzen duen galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak Ingurugiro Departamentuak noiz izan zuen Ega ibaian gertaturiko azkenengo isurketa kutsatsailearen berri itauntzen duen buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Parlamentuko Askotariko Taldeari atxikiriko "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentarioak, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Joan den urtea, 1998a, negargarria izan da Nafarroako ugaldeetako kutsadura eta fauna-hiltearen aldetik.

Beste isurketa kutsatzaile bat izan da, berriz ere. Oraingoan Ega ibaian izan bada ere, beste hamaikatxo izan dira, dagoeneko... Dirudenez, ibaian bizi direnentzako kalteak txikiagoak izan dira oraingoan. Hala ere, horrelako gertakariak behin eta berriz agitzea benetan kezkarria bada, are larriago da Administrazioak, oro har, eta Gobernu honek, bereziki, erakutsi duten geldotasuna eta aurreikuspen-falta.

Onartezina da, inondik ere, akats edo axolagabekeria soil batek -badirudi isurketa sortu duen enpresaren arduradun batek halakotzak jo duela-ugaldearen bitzita arriskuan jartzea.

Ezinbestekoa da kutsadura sor dezaketen enpresek segurtasun sistema bat izatea, aipatu ditugun ondorioak ekiditeko, istripuren bat gertatuz gero.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dut:

Noiz gertatu zen isurketa kutsatsailea Ega ibaian? Ingurugiro Departamentuak noiz izan du horren berri? Noren bitartez?

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 19an

Foru Parlamentarioa: Martín Landa Marco

Altsatsuko Ulaiar erreken kutsadurari buruzko galdera

ION IÑAKI ERRO ARMENDARIZ FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentario jaunak Altsatsuko Ulaiar erreken kutsadurari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Ion Iñaki Erro Armendárizek, Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentuko Taldeari atxikitako Foru Parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Altsatsuko dermioan dagoen Ulaiar errekan, beste kutsadura kasu bat gertatu da kontrolik gabeko isurkinak direla eta. Une honetan, antzematen ahal dira ibilgailuetarako olio edo/eta petrolioak ageri direla haren uretan eta ur kutsatuetatik kiratsa datorrela; izan ere, ingurugiro-kalte handia egin baita aipatu errekan.

1998ko maiatzean beste kutsadura kasu bat gertatu zen han; hura zela-eta, galdera egin zen Parlamentuan. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak erantzun zuen erreka zikin zegoela, SEPRONak uren analisia egin zuela eta urak Ebroko Uren Batzordeak isurtzeko baimendutako neurriak gaintzen zitue-

la; beste aldetik, esaten zuen egoera hori sortu duen gune nagusia Ekuden S.A.L. titularra den enpresak garraio-ibilgailuak garbitzeko zeukan tokia zela; kalteari aurre egiteko neurri gisa, enpresari errekan utzitako hondakinak kentzeko eta tokia garbitzeko eskatu zitzaion; 1998ko ekainaren 19an garbiketa lanak hasi omen ziren, eta halaber, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko Idazkaritza Teknikoak zehapen espedientea ireki zuen enpresaren aurka, antzemandako arau-hausteak zirela eta.

Ulaiar errekan hondakinen jaulkipen berriak izan direnez, jakin nahi dugu:

- Zer informazio du Nafarroako Gobernuak erreka horren kutsadurari buruz?

- Zer nolako hondakinak isurtzen ari dira Ulaiar erreka? Ba al dago aipatu isurkinak egin dituztenei buruzko informaziorik?

- Zer nolako ekintzak edo neurriak gauzatu ditu Nafarroako Gobernuak hondakin horiek deusezteko, isurkin berriak jazartzeko eta horiek egin dituztenei erantzukizunak eskatzeko?

- Ba al du Nafarroako Gobernuak Ulaiar erreka ingurugiroa babesteko neurri bereziren bat hartzeko asmorik, behin kontrolik gabeko isurkin kutsakorrek jaulki direla egiaztatu ondoren?

Iruñean, 1999ko otsailaren 1ean

Foru Parlamentarioa: Ion Iñaki Erro Armendáriz

